Arrigorriagako emakumeen ekarpen historikoa

2012

arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO



Argitaratzailea:
Arrigorriagako Udala
Berdintasun saila
Web : www.arrigorriaga.net
Posta elektronikoa: berdintasuna@arrigorriaga.org

Diseinua eta maketazioa:
Servisistem

© Arrigorriagako Udala
Legezko Gordailua: BI-257-2013
ISBN: 978-84-934137-8-1

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatik
erreproduzitzea argitaratzailearen berariazko baimenik gabe.

Arrigorriagako emakumeen ekarpen historikoa

2012

arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

Aurkibidea

SARRERA 9

METODOLOGIA 11

TESTUINGURU HISTORIKOA 13

BIZIMODUA ARRIGORRIAGAN 17

Haurtzaroa 17

Familia 19

Eskola 20

Artiach eta Torrontegi familiak 20

Gazteria 21

Gerra, gerraostea eta diktadura 23

1983ko uholdeak: “bizimodua aldatu zigun” 25

Ollargan-Abusu edo “babesgabeen auzoa” 27

LANA **33**

FABRIKAK 35

Hilados Ibaizabal 35

Papelera Española 38

Pinturas Artiach 40

MERKATARITZA ETA LANBIDEAK 42

Emagina 43

Esne-saltzaileak 45

Dendariak 46

Jostunak 47

Andereñoak 48

EUSKERA **49**

TESTUINGURUA 49

EUSKERA ARRIGORRIAGAN 50

Lehenengo “andereñoak” 51

PARTE-HARTZE POLITIKO ETA SOZIALA **55**

ARLO POLITIKOA 56

Arrigorriagako lehenengo emakumezko alkatea 56

Beste emakume batzuk eremu politikoan 57

ELKARTEAK 58

MADALEN emakumeen elkarte kulturala 58

ANDREBERRI emakume elkartea 60

SIAL emakumeen elkarte kulturala 61

ADISKIDEAK kirol Cluba 61

ZUBIETXE elkartea 62

Arrigorriagako jubilatuen eta pentsiodunen etxea 63

ARLO ARTISTIKOA: ANTZERKIA ETA MUSIKA 63

ALBARAKA abesbatza 63

HAMAIKA antzerki taldea 64

ESKER ONAK **65**

BIBLIOGRAFIA **67**

Sarrera

Lan hau, Arrigorriagako emakume eta gizonen berdintasunerako II. udal Planaren barruan dago (2009-2012), eta herriko kultura ondareari bertako emakumeek egindako ekarpen historikoa ikus dadin egin da.

Izaera kualitatiboa duen lan honetan emakumeak eurak protagonistak izatea gura izan da. Eurak izan dira informatzaileak, euren historia lehenengo pertsonan kontatu dutenak, euren testigantzarekin sekula kontatu gabeko Arrigorriagako historia desestaltzen dutenak: egunerokotasunarena.

Ez da batere erraza emakumeen oroimen kolektiboa arakatzea eta aztertzea; izan ere, ohikoa da historiaren azterketa gizonaren ikuspuntuan oinarritzea. Horrela, aintzat hartzen da emakumeen iragana gizonezkoenak bereganatzen duela eta, aldi berean, azken hau dela guztion errealitatea islatzen duena. Baina XX. mendean zehar joera honen kontrako lan historiografiko esanguratsu eta interesgarri asko agertu dira herrialde ezberdinetan. 70eko hamarkadatik aurrera nazioartean garatu den emakumeen historiari buruzko produkzio honi "New Women History" deitu zaio. Historia berraztertzeko era hau berria da, funtsezko indar bi biltzen dituelako: alde batetik gizarte historia berriarena eta bestetik feminismoarena.

Lehenengo ekarpena masa-azteketan oinarritu da eta ez elitearenean. Honela, botere ingurutik kanpo dauden gizarte arlo zabalen esperientzia ageri da. Patriarka-sistemak inposatzen dituen genero arteko harreman hierarkikoengatik bigarren mailako herritarrak izateko alboratuak izan diren emakumeen kasua da. Hori dela eta, azken hamarkadetan emakumeen esperientziak eta euren inguruari eurek egindako ekarpenak berreskuratzeko egiten ari diren ahaleginak izugarriak dira.

Bestetik, feminismoaren ekarpen nagusia analisia ekintzarekin lotzea izan da. Izan ere, emakume

guztiek emakume izateagatik menpeko egoera zehatza bizi izan dute historian zehar, garai, kultura eta klase sozial ezberdinetakoak izan arren.

Jendarte eredu patriarkarrak emakumeak zapaltzen eta baztertzen ditu. Egoera hau iraunarazteko mekanismo garrantzitsua izan da historian zehar bere lana ezkutaraztea. Batetik, emakumearen lana espazio pribatura mugatu nahi izan da, onarpen sozialik gabeko lanetara baztertuz emakumea. Bestetik, betidanik emakumeek hainbat lan burutu dituzte aitortzarik gabe. Horrela, sektore honek jendarteari egiten dion ekarpena ezkutarazi egin da. Hau izango da gure lanaren abiapuntua: azken mendean Arrigorriagako emakumeen jarduerak deskribatzea eta biltzea.

Errepaso historiko honen baitan, emakumeen kontzientziak eta borrokak izan duen eragina ere jasoko dugu. Azken hau izan da emakumeek prozesu ekonomiko eta sozialetan jokatu duten papera ikustarazteko klabea. Beraz, emakumeak espazio publikoaren eskurapenean emandako aurrerapenak agertuko dira.

Metodologia

Azterlan hau egiterakoan, gaur arte gizarte edo kultura azterketetan objektu soil bezala hartuak izan diren emakumeak agerira ateratzeko eta protagonistak izateko helburuarekin, metodo etnografikoa jarraitu da perspektiba feministatik begiratuta.

Landa lana emakumeek eurek emandako informazio bilketan datza, haien memoria kolektiboan gordeta dutenari buruz hitz egiteko egokienak eurak direlako. Arrigorriagan bizi diren emakumeen bizitzen historien edo kontakizunen analisia egin da, hau da, bai berton jaiotakoenak edo, bai beste leku batzuetatik etorritakoenak, herritar sentitzen direnenak. Euren banakako biografien bidez, Arrigorriagako emakumeen historia kolektiboa osatzen lagundu diguten belaunaldi batzuetako emakumeak dira.

Erabilitako analisi teknikei dagokienez, dokumentu idatzien berrazterketan sendoa izan den, eta emakumeek elkarrizketetan emandako informazioa baieztatzeko eta testuinguruan kokatzeko balio izan duen artxibo, hemeroteka eta lan bibliografiko garrantzitsua egin da.

Osagarri bezala, hainbat adin, jatorri eta ibilbidetako emakumeen bizitzen historiak edo biografiak bildu dira.

Eta lanaren ardatz bezala, hainbat adin eta perfil ezberdinetako 63 bat emakumeri egindako elkarrizketa irekiak, gutxi gorabehera pare bat orduko iraupenekoak.

Elkarrizketa hauen bidez, interes nagusiagoko arlo edo une zehatzak identifikatu dira: emakumeen lana fabriketan, euren parte-hartzea udalerriko politika eta gizarte bizitzan, 1983ko uholdea… Aurrez prestatutako gidoi baten bidez zuzenduriko elkarrizketa erdi-irekiak egiteak, aldez aurretik zehaztutako arlo edo une hauetan sakontzen utzi digu.

Hala ere, elkarrizketatutako emakume gehienek ez dauden beste emakume batzuk, euren ekarpen

garrantzitsuagatik aipatzen dituztenean, udalerriko emakumeen memoria kolektiboa birmoldatzeko lana zaila izan daiteke.

Azken hauen historia berreskuratzeko, elkarrizketa erdi-irekien bidez ere, azterlanerako garrantzi espezifikoa zuten eta dagoeneko bizirik ez dauden emakumeen hurbileko beste emakume batzuek emandako zeharkako bizitzen testigantzak bildu ditugu.

Landa lan guztian zehar, euren familia eta lan munduari buruzko narrazioa “janzteko”, elkarrizketatutako emakumeek emandako argazkiak bildu ditugu.

Testuinguru historikoa

XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran Arrigorriagak garapen ekonomikoan bultzada nabaria bizi izan zuen Bilboalde inguruko meategien esplotazioari, trenbidearen eraikuntzari eta honek udalerrira ekarri zituen geltokien onurari esker. Iraultza industriala baino lehenagoko fabrikek, burdinolek eta errotek, beste berri batzuei eman zien bidea: iltze eta irin fabrika (Artiach, 1890, Harino Panadera SA, 1900, Papelera, 1900, eta abar).



1900 eta 1930 urteen bitartean Arrigorriagako biztanleria hirukoiztu egin zen eta 3.345 biztanle kopurura heldu. Garai hartan emakumeen eginbehar nagusiak nekazaritza eta etxeko zereginak ziren. Alde batetik, familia-baserriak euren esku geratu ziren gizonak inguruko fabriketan lanean hasi zirelako eta, bestetik, edozein emakume etxeko lanetan aritzeko trebatuta zegoela pentsatzen zutelako. Horrela, bada, soldatapeko emakume ezkongabeek inoren etxeetara jotzen zuten "zerbitzatzera".

Hala ere, apurka-apurka, zerbitzu edo hirugarren sektoreko jardueren hainbat arlotan emakumeen presentzia nabaria izan zen, adibidez, hezkuntzan, osasunean, arlo komunikatiboan, bulegoko laguntzaileen artean, eta abar, lanpostu baxuenetatik hasita, eta ia beti emakume izateari atxikita zeudela zeritzoten zereginetan, esaterako, heziketa, zaintzak, laguntza, harreman arloa, eta abar.

Industria barruan, emakumeek nagusiki kontsumo-ondasunak ekoizten zituzten enpresetan lortzen zuten lana: oihalgintza, joskintza edo paper-industria, tabako-industria eta elikagai-industria.

Industria nagusia (meatzeak, burdingintza…) gizonezko langileentzat egokiagoa zela uste zen. Hala ere, hemen ere euren ekarpena oso garrantzitsua izan zen. Izan ere, "ostalariei" emandako arretaren bidez etxeko ekonomian diru sarrera gehigarria egon zen eta, batzuetan, gizonek ekarritako soldata nahikoa ez zenez, horrekin osatzen zen. Azkenik esan behar da, emakume asko negozio txikietan ibiltzen zirela sukaldari edo garbitzaile.

30eko hamarkadan, gizonen maila berean ez bazen ere, emakume gehienak alfabetatuta zeuden. Izan ere, emakumeen heziketa familiaren zaintzara eta etxeko zereginetara guztiz lotuta zegoen.



Garai hartako eskolan hizkuntza nagusia gaztelania izatea eskolatze prozesuan faktore garrantzitsua izan zen. Familiek euren alabak eskolara bidaltzen zituzten gaztelania ikas zezaten, horrela etorkizun hobea izan ahal izateko, euskara debekatuta eta bere erabilera jazarrita baitzegoen.

Dena den, behin hezita, ez ziren asko izan lan-merkatuan sartu zirenak, euren senarrek soldata "ona" izanez gero, ez baitzegoen ondo ikusita emakumeek lan egitea.

Garai horretan, amatasun asegurua, emakumeek langileen ordezkari bezala parte-hartzeko ahalbidea, eta halakoak bezalako aldaketa laboral sakonak ekarri zituen legegintza zabala onartu zuten. Halere, gauzak ez ziren aldatu II. Errepublika heldu arte. Garai horretan ordura arte ustez lortezinak ziren eskubideak bereganatu zituzten, esaterako, boto eskubidea.

Diktadura frankistak emakumeen estatusean atzerakada argia ekarri zuen: Errepublikako lege aurrerakoiak zein sexu berdintasunaren aldekoak eta emakumeei eskubideak aitortzen zizkietenak desagertu egin ziren; emakumeak berriro etxera bidali zituzten, zeharo hierarkizatutako familiara, senarraren eta aitaren agintepera.

Honako hauek bezalako asko eta asko jasan behar izan zituzten: errepresioa, kartzela, janari eza, estraperloa, tokian tokiko talde karlisten eta falangistengandik jasotako errepresioa, balio katoliko eta atzerakoietan bereizi eta oinarritutako eskola frankista, eta abar.

50eko hamarkadaren amaieratik aurrera, gizarte arloan nolabaiteko askatasun kutsua nabaritzen hasi zen, kanpora zabaltzeko baharra, nazioarteko erakunde ekonomikoetan sartu ahal izateko baldintza gisa, atzerrian inbertsioak onartu eta maileguak jaso ahal izateko.

Mundura zabaltze honek ekonomian, demografían eta gizartean aldaketa asko eragin zituen.

Arrigorriagako biztanleria bikoiztu egin zen eta 1950ean 4.287 biztanle izatetik 1960an 8.253 izatera igaro zen; inguruan enpresa kopurua handitu egin zen eta ondorio bezala langile kopuruak ere gora egin zuen. Gainera, politika fatalistak zirela eta, jaiotza-tasek goia jo zuten.

Testuinguru horretan, zerbitzuen sektorean gero eta langile gehiago behar izateak, eta familien kontsumo beharrak ere, emakumeak soldataren bila ateratzera behartu zituen.

Garaiko genero rol eta sistema ekonomikoaren erruz, lan merkatuan emakumeak "erreserba" antzeko zerbait zirela pentsatzen zuten eta etxean doaneko langile. Horrek kolektibo osoaren lan-tasaren igoera geldiarazi zuen.

Arrigorriagan bizi ziren emakumeek gehienbat etxeko lanetan edo industrian lan egin zuten, eta azken horren barruan, ehungintzan, ogi industrian eta papergintzan.

Lan aukera handiagoa zegoenez, trebakuntza handiagoko lanak aurkitzeko aukerak ere handitu egin ziren. Ondorioz, emakumeentzat prestakuntza eskaintza handitu egin zen eta, aldi berean, legegintzan aldaketak sartzen joan ziren.

1958an, emakume ezkonduen egoera juridikoari dagokionez, Kode Zibilean aldaketak egin zituzten eta 1961ean "eskubide politikoen, profesionalen eta emakumearen lanaren Legea" onartu zuten. Horrek ordura arte euren esku ez zeuden zenbait lanbide eta kargu politikotara heltzeko aukera ematen zien. Halaber, emakume ezkonduek soldatapean lan egiteari onirititzia eman zioten eta soldata-diskriminazioa debekatu zuten. Hala ere, benetako aldaketak oso murritzak izan ziren eta soldata berdintasuna ez zen lan merkatuan islatu. Emakumeek, gehien bat hirugarren sektorean lan egiten jarraitu zuten noizbehinka eta ia beti ezkondu arte.

60ko hamarkadan emakumeak gero eta gehiago mugitzen ziren: heziketa eta lanaren bidez, ideia berrien eragina ere geroz eta handiagoa zen. Eliza Katolikoa ere zabaltasun zituen. Alderdi Komunistak "Emakumeen mugimendu demokratikoa" sortu zuen, eta 1964ko Elkarteen Legeari esker, erakundeak sortzen hasi ziren, nahiz eta hasieran era geldo baten izan. Auzoetako elkarteetan emakumeen presentzia gero eta garrantzitsuagoa zen, eta 70eko hamarkadan eurak mobilizatzeko gaitasuna nabarmen handitu zen.

1972an emakume ezkongabeak, behin 21 urte betez gero, familiaren etxetik irteteko baimena lortu zuten eta horrela gizonekin berdindu, 25 urte betetzera itxaron beharrean ordura arte bezala.

1975ean Hezkuntza Lege Orokorra onartu zenean, nesken eta mutilen artean eskolaratze-tasa berdina zen. Baina beste lege bat ere onartu zuten. Lege horren arabera, emakume ezkonduak helduak ziren eta, hortaz, ez zuten senarraren baimenik behar lan egiteko (baldintza hori Kode Zibiletik eta Merkataritza Kodetik ere kendu egin zuten). Horren ondorioz, senarraren esana derrigorrean bete behar izatea ere desagertu egin zen.

Arrigorriagan trantsizioa krisialdi industrialarekin hasi zen, beste batzuen artean bertako enpresarik garrantzitsuenean eragina izan zuena: "Papelera Española, S.A." delakoan.

80ko hamarkadan tamaina txikiagoko enpresak eta goraka zihoan merkataritza elkarrekin zeuden. Emakumeen presentziak eremu publikoan garrantzi handia hartu zuen: 1983an Emakumearen Institutua eta 1988an EAEn EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Institutuaren sorkuntzarekin, berdintasunaren aldeko politika publikoak eta emakumeen elkarteak agertu ziren. Erakunde publikoen aldetik, Mugimendu Feministak emakumeen aldarrikapenen onarpenean funtsezko paperra jokatu zuen.

Gizarte aldaketek jarduera femeninoen tasa handitu zuten, eta 90eko hamarkadaren hasieran krisia egon arren, ez zen txikiagotu. Behin emakumeak ordaindutako lana izatera heldu zirenean, lan merkatuan mantentzeko euren borondatea sendoa izan zen eta

eremu pribatuan baztertuta geratzeko prest ez daudela erakutsi zuten. Hala ere, 1995etik aurrera, emakumeen jarduera tasa gelditu egin zen, gizonena ez bezala, hau egonkor mantendu zen eta. Emakumeek lan ezegonkorragoak izaten jarraitu zuten, lanaldi partzialeko lan eta iragankortasun maila handiagoekin, eta soldata txikiagoekin.

Gaur egun, emakumeen lanaren ezegonkortasun nagusienari emakumeen lanaldi bikoitzaren arazoa gehitzen zaio. Gizonak eremu pribatuan inplikatzea ere gero eta beharrezkoagoa ikusten da emakumeek eremu publikoan ere sar daitezen, baina pentsamoldeek oso astiro egiten dute aurrera.

Bizimoduan Arrigorriagan

Haurtzaroko oroitzapenak, eskola, familia

Proiektu honetan parte hartu duten adin nagusieneko emakumeei esker, 1930 eta 1940ko hamarkadetan zehar Arrigorriagan izandako bizimoduraino atzera jo dezakegu.

Udalerria garai hartan egungo biztanleriaren herena zen eta Urgoiti pasealekuaren inguruko guneaz gain, inguruko auzo txikietako baserrietan biltzen ziren familiak.



"Ez zegoen gehiagorik, Arrigorriaga Urgoiti pasealekua zen. Gainontzeko ala-bat baserri ziren eta zelaiak baratzekin".

Haurtzaroa

Emakume askok haurtzaro lasaia eta ardura handirik gabekoa bizi izan zuten, garai hartan bizimodua gaurkoa baino errazagoa baitzen. Hori bai, gehiengoa bat dator euren amen bizimodua gogorragoa izan zela esaterakoan, seme-alaba gehiago eta etxean lan handiagoa baitzeukaten.

"Garai hartan ez zegoen orain dagoen guztia, seme-alabak ez ziren programatzen, etorri egiten ziren eta kitto".

Ateak zabalik zeuden eta emakumeek elkarri sano laguntzen zioten, auzokideen artean konfiantza handia zegoen eta.

"Familia bakarra ematen genuen, guztiok elkar ezagutzen genuen; emakume nagusiak



udan jaisten ziren, eta etxeko sarreran esertzen ziren euren istorioak kontatzeko eta garai hartako neska-mutilak euren inguruan jesartzen ginen entzutera, batzuetan, gaueko izarrak arte. Ez genuen presarik, etxean baikeunden, eta gure gurasoak ez ziren arduratzen".

Bilbotik datorren errepidea ez zegoenez, Arrigorriaga isolatuago zegoen.



"Arrigorriagak askoz "herri izaera handiagoa" zeukan. Oso polita zen; mundu guztiak elkar ezagutzen zuen herritxoa zen. Bazenekien nor zen nor eta non egiten zuen behar. Orain hiri bihurtu da!".



Arrigorriaga mundu guztiak elkar ezagutzen zuen herri txikia zenez, neska-mutilak edozertarako autonomoagoak ziren.

"Kalean jolasten zen, baina ez zenuen orain bezala zaintzapean egon behar. Dena lasaiagoa zen eta amak etxeko lanak egiten, semealabak zaintzen eta abarretan oso lanpetuta zeuden. Nonbaiteko mina izanez gero, amak "Don Gildos" (Hermenegildo Lekunberri) medikuarenera joateko esaten zigun. Eta ez genuen birritan pentsatzen, bakarrik joaten ginen, naturaltasun osoz".

Garai hartan11 urteko neskatilek autonomia itzela zeukaten,

"Ni bakarrik joaten nintzen tren txartelarekin, goizean zulatu ez ziezadaten desiratzen, arratsaldean erabili ahal izateko... Bidaia bat aurreztea zen, eta hori oso berri ona zen diru

apurtxo bat aurreratzea adierazten zuelako. Ez zenuen sekula dirurik eramaten, ez zegoelako. Adin horretan nire izekok Bilbora bidaltzen ninduen hariak eta botoiak erostera konfiantza osoz; dirua eman eta enkarguak azaltzen zizkidan".

Familia

Jaiotza-tasaren kontrol falta honek hurrengo belaunaldientzat ere berdin jarraitu zuen, nahiz eta emakumeak honek zuen garrantziaren jakitun egon.



"Emakumeok ez genuen bizitzaz gozatzen. Beti berriro haurdun geratzeari beldur genion. Lehenengo seme-alabak ondo, baina gero... beldurra sartzen zitzaizun, eta ezin genuen gozatu, zeren haurdun erraz geratzen ginenok..."

Dena den, etxeko lanak eta familiako kideen zaintza amen lana zen, hauek baitziren etxeaz, izanez gero, ortuaz, hornikuntzaz eta abarrez arduratzen zirenak. Amak falta zirenean, ardura hau alabena zen. Hauek etxetik kanpo lanean arituz gero, ordaindutako lan hori utzi behar izaten zuten familiaren kargu egin ahal izateko.

Oroitzapen aipagarrienak, arropa garbitzeko lana, eta emakumeek euren amekin eta beste emakume batzuekin harraskan emandako uneak dira. Garbitzea lan gogorra zen. Gainera, bere denbora behar zuen,



baina harrasketako oroitzapenak onak ziren, zeren leku hauetan berba egiten baitzen, barre, esamesak kontatu eta, hori ezezik, emakume hauen eguneroko bizitzarako garrantzitsuak ziren berriak ere bai.

"Nik gogoratzen dut emakumeak ikustea fabrikatik bueltan etorri, eta zelan joaten ziren Urgezara, errekara garbitzera. Gaur udaletxeko plaza dagoen lekuan, harraska bat zegoen



eta bertan emakumeek orduak ematen zituzten garbitzen eta berbetan. Bitartean, neska-mutilok plazan euren inguruan jolasten ginen".

Eskola

Neskatilak ziren bitartean eskolara joaten ziren, orokorrean 12 edo 13 urte bete arte. Hala ere, familiaren egoera ekonomikoaren arabera eta alabek etxera dirua eramateko beharraren arabera, eskola denboraldia luzeagoa edo laburragoa izan zitekeen. Lasaiago zebiltzan familietako emakume batzuk, eskola eta gero ikasten jarraitzen zuten baina gehiengo handiena lanean hasten zen 13 edo 14 urte bete ondoren..



Batzuetan, eskolan ez jarraitzeak ez zeukan beharrarekin zer ikusi handirik, neskatilek ikasteko behar izanik ez izatearen sinesmenarekin baizik. Orokorrean eskola garaiko oroitzapena ez da oso ona. Hau gertatzen da, alde batetik, uste zutelako neskek ez zutela mutilek besteko ikasketa beharrik. Sarritan, oso goiz uzten zioten eskolara joateari lanean hasteko. Bestalde, elkarrizketatutako emakume gehienentzat eskola garaia eta gerraostea aldi berean gertatu ziren, horregatik, inposizio frankistaren zakarkeria oroitzen dute.

"...instrukzioa eta egitera behartzen gintuzten guztia egin behar".

"...eskolara "txori" hori-gorriekin joatera behartzen gintuzten. Parkean, eliza ondoan zegoen monumentu baten aurrera, "Cara al Sol" delakoa kantatzera joan behar izaten genuen. Hari guzti hari hain genion gorrotoa ze, betiko gogoan geratu zitzaidan."

Eskolan hotz handia jasaten zuten, eta giroa tentsio handikoa zen, bai erregimeneko kantengatik, bai ezer gutxi berotzen zuten berogailuen keagatik, eta euskaraz hitz egitearen debekuagatik. Familia nazionalistak zituzten emakumeentzat, garai honetako oroitzapenak bereziki gogorrak dira, bai euren familiek bizitako errepresioagatik, bai euren esperientziengatik. Arrigorriagan haurtzaroa pasatu zuten guztiek euskaraz hitz egin ezin izana gogoratzen dute. Eskolan eta gero plazan (kaletarrak zirenak) edo euren etxe inguruetan jolasten ziren.



"Ez zegoen besterik, baina ez genuen gehiagorik gura; etxera hurbildu, amak leihotik askaria bota eta jolasean jarraitzen genuen. Ogia txokolatearekin askaltzen genuen, ez baitzegoen gehiagorik. Bizitza orain baino askoz sinpleagoa zen".

Artiach eta Torrontegi familiak

Arrigorriagan beraien maila ekonomikoagatik oso ezagunak ziren familia bi zeuden: bata Artiach zen eta bestea Torrontegi. Ia emakume guztiek gogoratzen dituzte arrazoi batengatik edo beste batengatik. Torrontegi familiak bere udako etxea geltoki ondoan



zeukan, eta bertan bankete itzelak, ezkontzak eta beste ospakizun batzuk egiten zituzten.

Artiach familiak bere etxea gaur Lehendakari Agirre parkea dagoen lekuan zeukan. Hemen, behin *Hilados Ibaizabal* itxi eta gero, pinturen fabrika zegoen eta makume batzuk berton hasi ziren lanean.

Emakume bik gogoratzen dute "Artiach etxeko andrea"ren iloben adin berekoak zirela eta eureekin jolasten zirela, orduko maila sozialak ezberdintasun handiak markatzen zituen arren.

> ***"Gaur euskaltegia dagoen lekuan Artiach etxeko lorategien burdin hesia zegoen. Txikiak ginenean etxeko neskatoekin jolasten ginen; haiek ziren bizikletak zituzten bakarrak, noski. Baina haiek bi baino ez ziren, beraz, desiratzen egoten ziren plazara irten eta gurekin jolasteko. Konpainia dama eta hori guztiori eduki arren, oso neskatila jatorrak ziren!".***

> ***"Jende dotorea. Autoa zeukaten, Fregate delakoa. Espainia osoan horrelako sei baino ez zeuden. Oso jende garrantzitsuarekin erlazionatzen ziren. Askok noblezia tituluak zeuzkaten".***

Gazteria

Plazan kiosko bat zegoen eta igandeetan bertan zen dantzaldia. Emakume batzuek diotenez, oso giro ona zegoen. Gazteek haurtzarotik ezagutzen zuten elkar, beraz, ez zegoen beldurrik ez mesfidantzarik.



> ***"...herriko mutilekin ibiltzen ginen dantzan, normaltasun osoz. Madalenetako jaietan, urteko jantzia estreinatzen genuen. Aste Santuan, apur bat nagusiago ginenean, takoidun zapatak janzten genituen. Gogoan dut nire lagunekin lehenengo aldiz takoidun zapatak jantzi genituenean prozesiora joateko... ezin genuen ia pausurik eman!".***

Neskentzako aukerak oso murritzak ziren eta askok joskintza ikasi zuten, lan aukera bat izan zitekeelako ustean zeuden.

> ***"Hau ezinbestekotzat jotzen zen, emakume bezala jakin beharrekoa".***

Batzuek titulua lortu zuten gero bizimodua josten ateratzen lagunduko ziena. Beste asko inoren etxera joan ziren "zerbitzatzera", konponbide nahiko arrunta. Izan ere, horrek, batzuetan, neskak euren etxeetatik aldentzen zituzten, lan egiten zuten etxeetan barneko langile ziren eta. Baserrietan bizi zirenak "herrira" edo Basaurira edo Bilbora joaten ziren, ortuariak saltzera, gehien bat fruta, barazkiak eta esnea.



"Herrian bi edo hiru denda baino ez zeuden. Juanitarena, arropa denda zena, Albizuarena, jangaiena zena, Kooperatiba eta ezer gutxi gehiago. Hori dela eta, baserrietako emakumeei erosten zitzaizkien gauzak".

"Etxe arretik "el telero" deitzen genion gizona pasatzen zen. Oihalak saltzen zituen eta, gero, gure amak edo izekok jantziak egiten zizkiguten. Nire izekok jostetxea zeukan eta nik beste neskatila batzuekin batera, oso txikitatik ikasi nuen. Askotan, mutilak egun batetik bestera praka berriak eskatzera joaten zitzaizkion, nonbaiteko jaiak zirelako, eta nire izekok zizta-da batean egiten zizkien!".

Arropak erosteko ere ez zegoen leku askorik, horregatik, josten jakitea aintzat hartzekoa zen eta gutxi ziren bere familiarentzat arropak josten ez zekiten emakumeak.

Orokorrean, emakumeen gaztetako oroitzapenetan geratzen zena eskasia orokorra zen, ez bakarrik gerraosteko lehenengo urteetan, oso gogorrak izan zirenak, haurtzaro eta gaztaro osoan zehar baizik.

"Ez zen ezer sobran geratzen. Dena aprobetxatzen zen, ez orain bezala, dagoen kontsumismoa ikaragarria da eta. Gogoan dut gure aitak behin edo behin manta bat ekartzen zuela eta gure amak berokiak egiten zizkigula".

"Jantzi berria hogei igandetan erabiltzen zenuen eta jada ez zen erabilgarria eta astean zehar gauero garbitzen genuen aldagarri bakarra geneukan".

Familia batzuek saltoki txikiak zeuzkaten herrian, dendak edo tabernak, eta 13 edo 14 urterekin hasten ziren lanean familiaren negozioan laguntzeko.







"…Biltegi batek gauza bat ematen zizun, beste batek beste bat…olioa, Basauriko Otaolanean".

Baina gainera, Arrigorriagan, neska gazte asko lanera Hilados Ibaizabal fabrikara edo Papelerara eta batzuk Artiach pinturen fabrikara joaten ziren. Hortaz, sarritan, uste ez bezala, emakumeen jarduera ez zen soilik etxeko lanak egitea, baizik eta gehiengoak ordaindutako lana egiten zuen bere gaztaroan edo ezkondu arte. Beste batzuek ezkondu eta gero ere jarraitu zuten egiten. Hori dela eta, lanaldi bikoitza edo hirukoitza izatea eurentzat oso arrunta zen.

Gerra, gerraostea eta diktadura

Emakume nagusienek gerra eta gerraostea xehetasun osoz gogoratzen dituzte. Haietariko batek bere etxeko sarreran jausitako bonba batek ia hil egin zuela kontatzen du. Gerra amaierako azken hilabeteetan sarritan bonbardatzen zuten eta estoldetan babesten ziren, edo aterpeetara joaten ziren, "zulo handiren batera", edo hondar zakuekin betetzen zituzten trenaren tuneletara eta bertan gauera arte itxaroten zuten. Bonbardatzen zutenean Papelerako sirenak jo eta abisua emateko balio zuen eta bertako biltokien beheko aldea babesleku bezala erabiltzen zuten. Ez zen batere leku segurua, baina hau ez zuten jakin gerra amaitu arte.

"Papeleran zegoen babeslekura joaten ematen genuen eguna".

"Nire ama ere oso beldurtuta zegoen eta Papelerara jaisten ginen eta bertan jaten genuen. Janaria prestatzen ziguten., sekulako ikara genuela".

"Nazionalak" heldu zirenean "su biren artean egon ginen eta San Pedro auzoko kobazuloetan ezkutatu ginen. Familia askok 3 egun eman zituzten bertan".

Gerra garaian, gizonezko gehienak frontera joan ziren eta beste pertsona batzuek gerratik ihes egin nahian emigratu egin zuten. Hori dela eta, herrian



senar-emazte nagusiren bat, emakumeak euren seme-alabekin, apaiza, alkatea… baino ez ziren gertau. Gerra ostean, janari falta eta errazionamendua dela eta, estraperloa agertu zen.

"Bagenekien nork saltzen zuen, baina… ezin zen komentatu oso zigortuta zegoen eta". Estraperlora dedikatzen zen emakume baten kasua kontatzen dute. Hau trenak harrapatuta hil zen "pezeta" deituriko txarte-zulatzaile oso gaizto batengandik ihes egin nahian bagoi batetik bestera pasatzen ahaleginadu zenean".

Gerraostea familia-negozio txikietarako ere oso gogorra izan zen, baina ez soilik eskasiagatik, euren ideologia zela-eta, familia askok jasan behar izan zuten errepresioagatik.

"Gerra ostean, herrian zein baino zein txarragoak ziren aguazil bi zeuden. Gure aitak ziegan Pedro Artiachekin hilabete batzuk eman zituenez, "gorri separatistak" deitzen ziguten. Ezin gintuzten ikusi ere egin!".

Guardia zibilak gauez egiten zuen erronda eta etxez etxe joaten ziren. Emakumeek gehien bat janaria lortzeagatik pasatzen zirela esaten dute. Emakumeetariko batek errota bat zeukan etxe ondoan eta gogoratzen du bere familia beti arrazoi horrengatik zaintzapean zegoela. Errazionamendu garaia mingostasun handiz gogoratzen dute, kantitateak oso txikiak baitziren. 100 gramoak zatar-paperean pisatzen zituzten eta paperak berez pisu handia zeukala kontuan hartuta, anoa ez zen ezertan geratzen".

"Gose handia pasatu genuen. Gatzik eta oliorik gabeko aza egosia jaten genuen. Egun batean nik esan nuen: "hau ez dut gehiagotan jango". Aitari negar-anpuluak jausi zitzaizkion, indargabe".

Elkarrizketatutako gehienek gerraostea gerra bera baino gogorragoa izan zela diote. Emakume batek kontatzen du bere amarekin Santanderretik bueltatu zenean, etxean errekete bat bizi zela eta aita kartzelan zegoela. Beraz, izapide askoren ostean, Bilboko izekoen etxera joan ziren, euren etxea berreskuratzea lortu zuten arte.

"Amak bere burua seme-alaba birekin kalean ikusi zuen, etxejabetasuna izan arren, kooperatibaren etxe bat. Aitak, jada ezkongabea zenetik, kooperatiban dirua jartzen zuen etxe horretarako. Aita Asturiasen harrapatu zuten, hortik Santoñara joan zen, gero Deustuko unibertsitatera, Eskolapioetara, Larrinagara, Iruñako San Cristobal Fortera eta azkenik, Orduñara. Azken honetan loteria tokatu zitzaiela esaten zuten eta handik libre atera zen. Baina ia 4 urte eman zituen preso. Gure ama kartzelaz kartzela ibiltzen zen bera ikusi ahal izateko, baina azkenengora ez zion joaten utzi".

Diktadura frankistako urteak oso urte zapaltzaileak zirela datorkie burura, herritarrengan kontrol latza erabili zuten garai.". Emakume askok oroimenean markatuta dute eskolako patioan formatzera behartuta zeudela:

"Banderarekin eta "cara al sol" kantatzera".

"Guztiok burumakur".

Azaltzen dutenez, hurrengo urteetan eta nagusitan emakumeek ez zuten eskubiderik eta senarren bidez baino ez zituzten aintzat hartzen.

"Ez geneukan botorik", "bankuko libreta edukitzeko ere senarra behar genuen".

Diktaduran zehar emakumeak etxera baztertuak izan ziren, eta hein baten, haur bihurtuak, zeren uste baitzen ez zirela bizimodua antolatzeko gai, eta gizon bat behar zutela alboan aurrera egin ahal izateko. Aurrerago azaltzen den moduan, lanari dagokion atalean, emakumeek zailtasun handiak zeuzkaten lan arloan garatzeko ere; beraz, euren senarrenganako dependentzia osoa zen.

70eko hamarkadan, Arrigorriagan kanpotik etorritako familia ugari zeuden, hona, eta zehatzago Bilboaldera, industriak erakarrita etorri zirenak. Honela Arrigorriagako biztanleria nabarmenki handitu zen, eta Galiziako hainbat herritatik, Extremaduratik edo Gaztelatik etorritako emakume asko zeuden. Emakume hauetariko batek Cubo auzora etorri zeneko garaiak gogoratzen ditu. Behin ezkonduta etorri zen, eta oraindik berta jarraitzen du.

"Heldu bezain laster dendara joan nintzen ogitan eta galiziar batekin egin nuen topo, Galizian nire herri ondoko herritxo batekoa. Auzoko jendeak bertoo familia bagina bezala hartu gintuen".

"Emakume ezkongabeak lanean aritzen ginen eta gero, noizean behin, lagunekin irteten ginen baina behin ezkonduta ez ginen ateratzen. Nik neure lagunak Basaurin nituen".

"Oso bizimodu sinplea egiten genuen, oso herrikoa. Umeak izaten hasi eta lan egiteari uzten zenion hauek zaintzen hasteko, etxeko lanetan. Etxeak lan handiagoa ematen zuen, ez zegoen garbigailurik… Eguraldi ona egiten bazuen, Cubon kalera ateratzen ginen, atari aurrera puntuarekin, eta umeak jolasten ziren bitartean, han egoten ginen berbetan, "neurriko trajeak egiten" (horrelaxe deitzen genien txutxu-mutxuei)".

1983ko uholdeak: "bizimodua aldatu zigun"

Uholdeak baino lehen, Arrigorriagako bizimodua oso lasaia eta familiartekoa zen, auzokideen artean harreman estuak zituena, komunitate txiki eta errotze handia dutenen ezaugarriak baitira horiek. Emakumeen eta gizonen rolak oso markatuta zeuden eta emakumeen presentzia espazio publikoetan gizonena baino askoz ere txikiagoa zen.

Trenbideak, hesi geografiko garrantzitsua den neurrian, herria izugarri banatzen zuen eta barrerak, norabide batean edo bestean, behin eta berriro zeharkatu behar zituzten. Hori oztopo etengabea zen.

"(…) auzoetan bizi zirenek zera zioten: "kalera noa". "Emakume ezkonduak seme-alabak zaintzen aritzen ginen. Txikiak ziren bitartean puntu mordoa egiten genuen, etxeko lanak, etxea… Horixe zen gure bizimodua".

Naturaltasuna zen nagusi. Izan ere, mundu guztiak elkar ezagutzen zuen. Hortaz, herrian aurpegi berri-



ren bat ikusiz gero, mundu guztia jabetzen zen. Emakumeetariko batek gogoratzen du zer nolako bihotzondokoa eragin zion, ezkondu zenean, Basauritik Arrigorriagara bizitzera joateak.

"Lehenengo aldiz Arrigorriagako plaza zeharkatu nuenean, emakume batzuekin egin nuen topo eta zera esan zidaten: "Aizu, norekin ezkondu zara?". Ziurtzat jotzen zuten han banengoen, herriko mutil batekin ezkondu nintzelako zela. Nahiz eta Basauri ere herria izan, bizitzeko moduan aldeak izugarriak ziren. Adibidez, emakumeak ez ziren tabernetan sartzen, ez ziren etxetik irteten eta ez zuten bizi sozialik egiten. "Ez zenituen lagun emakumezkoak kafea hartzen ikusten, ezta bikotekidearekin zerbait hartzera irteten ere …".

Arrigorriagako bizimoduan uholdeek aldaketa izugarria ekarri zuten. Hamaika familia ezer gabe geratu ziren, urak literalki herria suntsitu zuelako. Industria-birmoldatze garaian zeudela, negozio ireki berria zuen jendea zegoen, zeukaten guztia horretan emana: (bankuari kreditu bat eskatzeaz gain).

"Familia askoren hondamena izan zen, ezer gabe gelditu, hutsetik hasi".



Uholdea abuztuan gertatu zenez, jende asko oporretan zegoen eta urak egindako kalteek herrirko buelta izugarri zaildu zuten, bideak oso hondatuta zeuden eta.

"Orduan, gertatutakoa jakiteko, euren etxe edo negozioen egoera ikusteko bueltatzen saiatu ziren, baina ez zen erraza ailegatzea, dena moztuta baitzegoen".

"Herrian zeuden familiek kanpoko lagunen edo senideen etxera bidali zituzten umeak, bertan ez baitzegoen ez urik ez argirik eta egoera oso negargarria zen".



"Urak dena suntsitu zuen, baina txarrena ondorengo basatza izan zen. Urteak aurrera doaz baina argazkiak ikustean oraindik negargura ematen du. Herri osoak bat egin zuen berreraiketan. Bero handia egin arren, emakume zein gizonek uretako bota haiek jantzi, palak eta mangerak hartu, eta aurretik geneukan lan ikaragarriari buru eman genion".

Jendearen elkartasuna da ondoen oroitzen dutena:

" Jendea Nafarroatik etorri zen, armada basa garbitzen aritu zen, Gurutze Gorria koltxoiak, sukaldeak ekartzen, Caritas ere ahal zuen guztian laguntzen ibili zen, … elkarlana izugarria izan zen. Kanpoan geundenok herrira gentozen autoak jendeak emandako janariz eta urez beteta, banatu ahal izateko. Dena banatu zen, jendea baserrietatik jaisten zen barazkiak eta arrautzak zekartzatela… Hori bai, izan bazen egoerari onura atera zionik ere, zeren urteak geroago oraindik kiloka janari gordeta zeukatenak zeuden".

"Hondamendi haren alde positiboa ikusteagatik, gauza "on" bakarra, herri ederra eraiki izana da. Gaur daukagun herria". Uholdea baino lehen oso epe luzerako Hirigintza Plana zegoen baina prozesu hori ere azkartu egin zen eta herria hutsetik hasita eraiki zen.



Hainbat emakumek jendearen parte-hartze orokorra gogoratzen dute herria berreraikitzeko orduan baina gehien bat herritar jakin batzuena.

Uholdeen ostean, eskola eraiki berria desagertu egin zen.

"Goizeko bederatzietan uholdeak eraman zuen. Etxeko leihotik ikusi genuen enbor erral-

doi batek suntsitu zuenean eta gure etxea ozta-ozta libratu zen".

"Eskola, bere agiri guztiekin, eskola liburuekin, historiekin, notekin... desagertu zen. Ez zen soilik eraikuntza izan, altzariak eta agiri guztiak ere hor joan ziren. Hainbat eta hainbat ziren egin beharrekoak!".

Ikasturte hasiera bertan egoteak emakume talde handi bat -gehienak amak- klaseak emateko premiazko ordezko leku bat bilatzera eraman zituen. Eta irakasleekin batera, oraindik ireki gabe zeuden Atxukarroko eskolak txukuntzen aritu ziren.

Hain zuzen ere hurrengo urtean, 1984an, eskolako Guraso Elkartea sortu zen, uholdeak ekarritako autoantolakuntzaren beharrak eraginda.

"Egia esan "guraso" deitzea ez zen egokia, amak amak baino ez ginen joaten-eta, antolatu ahal izateko. Oso gogorra izan zen. Orduan Atxukarro oso urrun zegoen baina ilusio eta gogo handiz egin genuen. Ekintzak antolatzeko mugitzen hasi ginen, neska-mutilek bidaia kulturalen bat egin zezaten dirulaguntzaren bat edo besteren bila, ...".



Herria berreraikitzeak biztanle guztiengan izan zuen eragina, baita emakumeengan ere.

"Dastalekuak ipintzen hasi ziren, eta tabernak atseginagoak ziren. Lehen ardotegi hutsak ziren eta gizonak baino ez ziren joaten".

Egoera jakin batzuk gogoratzen dituzte eta horietan ikusten da emakumeak etxeko bizitzara baztertuta zeudela:

"Ni mezatara joaten nintzen igandeetan baina etxeko negozioa zela-eta, nire senarra lanean geratzen zen. Behin, elizatik irten eta etxerantz nindoala, senarra ikusi nuen bere koadrilarekin txikiteoan. Ia elkar agurtu ere ez genuen egin. Garai hartan nirekin berbaegiten geratzea, ni eurekin zerbait hartzen geratzea edo bera nirekin batera etxera etortzea pentsaezina zen".

Ollargan-Abusu edo "babesgabeen auzoa"

50eko hamarkadan Ollarganeko auzoa mendi-hegal hutsa zen eta txabola eta etxetxo batzuek osatzen zuten. Industriak eta meategietako lanak erakarrita, Bilbora heltzen ziren familiak bizi ziren bertan. Bizi baldintzak oso penagarriak ziren:, txabolak gau bakar baten eraikitzen zituzten, familia berria heldu ahala, honela agintariek ezin zuten "obra" gelditu, indarrean zegoen araudiaren arabera ezin baitzuten eraikitzen hasita zegoen etxerik bota.

"Familia bat heltzen zenean, adreilu batzuk eta zerbait gehiago pilatzen zuten eta auzokideen laguntzarekin txabola larunbatean altxatzen zen, egun horretan alguazilak ez ziren igotzen eta".

"Txabolak lixa-kartoizkoak ziren, gogoratzen naiz ni. Miseria handia zegoen, miseria handia. Familiak Extremaduratik, Andaluziatik, Galiziatik eta batzuk Gaztelatik etortzen ziren".





Kale bakarra zegoen, "Gran Via" deitzen ziotena baina ez zegoen asfaltatuta eta euria egiten zuenean auzoa basatz bihurtzen zen. Txabolez gain, beheko aldean, eraikitzen joan ziren etxe txikitxo batzuk zeuden baina ez zegoen ez urik, ez argirik.

"Lanparak "karburozkoak" ziren, mineral bat, meategietara eramaten zituztenak bezalakoak. Ura ipini eta gutxira, ia Ollarganeko jende guztiari etxea urez bete zitzaion, iturriak ixtea ahazten zitzaien eta. Komuna etxetik kanpo zeukaten, ataritik kanpora irteten ziren eta han atariek komun ilara bana zeukaten".

Bai txaboletan bai etxetxoetan familia osoak bizi ziren, batzuetan familia ugariak, bi edo hiru gela txikitan eta sukalde batean banatuta. Etxe batzuetan familiak eta apopilo taldea elkarrekin bizi zirenez, honek familiari gutxieneko diru sarrera ziurtatzen zion.

"205 zenbaki zeuden, baina agian hiru gelako etxebizitza batean hiru familia bizi ziren. 101. zenbakian emakume galiziar bat oroitzen dut bere senar eta semearekin bizi zena baina etxean hogei apopilo inguru zeuzkan. Logeletan oholak zeuzkaten jarrita ohatzeak bailiran. Hori nik neuk bizi izan dut".

Gizonak meatzetara eta fabriketara joaten ziren. Bitartean, emakumeak, gazteak gehienak, seme-alabak izanez gero eta eskolarako adina heldu arte, euren heziketaz eta etxeaz arduratzen ziren eta, behin eskolara bidalita, "zerbitzatzera" joaten ziren Bilbora.

"Etxeko lana oso gogorra zen. Emakumeek ura izanez gero, etxean garbitzen zuten, baina izan ezean, igandeetan garbitzera, Arrigorriagarako bidean zegoen "Archicoco" errekara joaten ziren. Arropa siku eramaten zuten baina bueltan, arropa busti-bustita zekartela, pisu handia hartzen zuen".

"Harrizko zubitxoa zegoen eta handik errekara heldu ahal zen, arropa-garbiketa egiteko harriak zeuden lekura. Astean behin garbitzen zen arropa eta gero belarretan ipintzen zen eguzkiak zuritu zezan".

"Etxeen baldintzak eskas-eskasak ziren: askotan ez zegoen komunik eta, zegoenetan, gehienetan ez zegoen urik, bertara ez zen heltzen eta. Ura (hondakin-ura) kalean zehar zebilen".

Miseria eta bizi baldintzak gorabehera, emakumeek auzotarren arteko elkartasuna nabarmentzen dute. Jende gehiena soinean zeramanarekin etorri izanak eta familia guztiek egoera beretik pasatu izanak, heldu berriei dena ematea zekarren, batez ere eskasia ekonomikoa zegoen garaietan.

"Lanik ez zegoenean eta aurrera egitea zaila zenean, auzokideei esker inori ez zitzaion plater bete janari falta".

Ezin da Ollargani buruz hitz egin garai hartako parrokoari buruz hitz egin gabe, Felix Jimenez jauna, auzoa eraiki zuen pertsona emakume askoren ustez. Parroko honek bere inguruan makina bat lagun bildu zituen, gehienak emakumeak. Emakume hauek urte askoan ahalegin handiak egin zituzten Ollarganeko bizilagunen baldintzak hobetzeko: eskolak, oinarrizko beharrak, mediku eta osasun arretak, janari-horniketa, gazte eta emakumeen aisia, eta abar.

Parrokoak auzoko egoera eskasa ikusita, Ollarganen komunitate bat osatzeko asmoz Compañía de Maria delakoarekin jarri zen harremanetan. Hori dela eta, 1970ean Ollarganera lau moja gazte heldu ziren: bi maistrak ziren eta beste biak maistra izateko ari ziren prestatzen.

"Ikastaro batzuk egin genituen baina ezer gutxi. Soberan geneuzkanak honakoak ziren: lan egiteko gogoa, gorputz eta arima, bokazioa eta laguntzeko eta emakumeen behar izanak ikusteko prestutasun osoa, gure lana irakaskuntza delako. laurok barnean generaman. Ez genuen ezer planteatu behar izan, soilik hona heldu, zer zegoen ikusi eta konpontzen saiatu. Gure lehentasuna emakumeei laguntzea zen".



Une hartan Ollargan txabola auzo bat zen eta lau moja hauen betebeharra eskolaren, kontsultategiaren eta katekesiaren ardura hartzea izan zen, baita emakume, gazte, eta abarren prestakuntzarena ere. Auzotarrekin harremanetan egotea eskatzen zitzaien jendeari behar zen guztian laguntzeko.

"Orduan etxetik kanpo egiten genuen bizimodua, jendearengandik oso gertu eta oso ondo hartu gintuzten".

"Gu kale nagusian bizi ginen eta Gran Via deitzen zioten. Bertan gure etxetxoa, eliza, aroztegia, anbulatorioa eta eskola zeuden. Etxeetariko batek ere ez zuen zimendurik eta hezetasun izugarria zegoen. Baina gu han jendearentzat lan egiteko geunden eta gainontzekoak bezala bizi ginen, behar gintuenaren eskura geunden, behar zenerako, egunez eta gauez. Bikarioarentzat laguntza handia izan ginen, bera izan zelako benetan auzoa altxatu zuena".

Jende artean elkartasun handia zegoen, bai familia etorri berrien txabolak eraikitzerakoan, bai lehenengo asteetan zehar edo geroxeago, familiaren batek arazo ekonomikoak zituenean, besteek janaria edo behar zutena ematen zieten eta.

"Halako egoeran bizi zen Ollarganeko jende askok, gaur egun, erosoago eta bizimodu hobea izan arren, orduko bizimoduaren falta sentitzen dute, mundu guztiak elkarri laguntzen baitzion. Gaur indibidualistagoak gara, beste era batean bizi gara".

Elkarrizketatuetariko emakume batek, emakumeek eta gazteek aisialdirako aukeraren bat izan zezaten parrokiak egindako lana azpimarratu du.

"Katekesira joaten ginenoi elizan zegoen zinemara joateko txartela ematen ziguten. Horrela merkeago ateratzen zitzaigun. Gazteek aisialdirako zeukaten ia aukera bakarra Abusuko zinemara joatea zen. Elizari eta



bertan zeuden ekintzei esker gazteriak sozializatu egiten zuen, harremanetan jartzen zen, berriketan egiten zuten, jolastu egiten ginen...".

Auzoko azpiegitura guztiak bere ekimen, ahalegin eta antolaketa gaitasunari esker sortu ziren.

"Neska gazte askok auzoa hobetzeko, apurka-apurka, berarekin batu ginen. Kontsultategi xume batekin hasi ginen eta eraikuntza-kooperatiba sortzen amaitu genuen. Honek etxebizitza duinak eraikitzeko aukera eman zigun, familiek ordain zitzaketen prezioan".

Parrokoa emakumeen beharrizanez ere arduratu zen. Senarrak lanera joaten zirenean andreak auzoan geratzen ziren. 70eko hamarkadaren hasieran, egin zitekeen gauza bakarra familiei laguntzea zen eta oinarrizko beharrizanei erantzuten lagundu. Hortaz, mojek eta emakume batzuek familiei bisitak egiten zizkieten eta emakumeen aukerak handitzeko ikastaroak eta beste ekintza batzuk antolatzen ematen zituzten arratsaldeak.

"(...) Emakume gazteekin Donostiara txango batean, Igeldo mendira eta errusiar mendira joan ginen; emakumeetariko batek txartela hartzerakoan, "joan etorrirako" txartela eskatu zuen. Euren herritik, Galiziatik, Extremaduratik edo Andaluziatik hona heldu zirenetik sekula Ollarganetik irten gabe zeuden emakumeak ziren, esperientziarik gabeko emakumeak, bizitzan lan eta lan aritzeko aukera besterik izan ez zutenak. Auzotik irten zitezen edozein ekintza antolatzen saiatzen ginen. Asko Ollarganetik Abusuraino joateko baino ez ziren ateratzen".

Gizarte-langile baten laguntza ere izan zuten, bikarioaren ezaguna. Emakume horrek auzoko behar sozialei aurre egiteko baliabideak lortzeko lan handia egin zuen.

"Emakumeak bakarrik sentitzen ziren, beraien egoera ekonomikoa zela-eta oso arduratuta zeuden, etorkizunean zer gertatuko ote zitzaien zalantza izugarriarekin. Gainera, deserrotze gogorra sufritzen zuten, non zeuden ere ez baitzekiten. Bilbora heldu ziren baina Ollarganeko lau kaleak, besterik ez zuten ezagutzen; bertan isolatutako leku batean egongo balira bezala zeuden, atari zabalean, miseria eta txabolaz beteriko auzo baten errealitatetik isolatuta. Ez zeukaten baliabiderik, ez zekiten zelan jarraituko zuten aurrera, ezta beraien semealabak zelan hezi. Orduan ez zen genero-indarkeriari buruz hitz egiten, baina egon bazegoen eta emakume askok sufritzen zuten. Gainera gizonen artean alkoholismo handia zegoen, eta horrek emakumeek asko jasan behar izatea ekartzen zuen".

"15 urterekin gauez ikasten nuen, auzora guri klaseak ematera etortzen ziren "andereño" batzuekin. Gazteak eta familia dirudunetakoak ziren. Batxilergoko lehenengo maila irakasten ziguten. Baina utzi egin behar izan nuen, zeren sarrera-proba egin ahal izateko Salamancatik sekula ailegatu ez ziren paper batzuk bidali behar zizkidaten. Hala eta guztiz ere, klaseak emateko prestatuta zegoen auzoko pertsona batekin ikasten jarraitu nuen. Sukaldaritza eskolak ere ematen zizkiguten. Hau guztiau elizak antolatuta, elizaren parean egindako eraikin

batean, geroago Ollarganeko eskolak izango zirena. Menos mal que se ocuparon de darnos cultura, a las chicas; la clase de cocina era algo novedoso para nosotras, a pesar del rol. Eskerrak neskoi kultura emateaz arduratu ziren. Sukaldaritza klaseak guretzat gauza berria zen, rola den arren. Gainera, prestatzen zen janaria zozketatu egiten zen eta, tokatuz gero, etxera eramaten genuen. Hura izugarrizko poza zen familiarentzat, oso garai latzak ziren eta".

"Garai hartan emakumeen jomuga bakarra familia osatzea zen eta Ollarganen aurrera ateratzea nahikoa zen!".

Ia ez zegoen haurtzaindegirik eta, behin ezkonduta, normalena lanari uztea eta umeak edukitzea zen.

"Ez genituen preserbatiboak ezagutzen, hortaz, ez genekien zenbat ume edukiko genituen, "niri inork ez zidan ezer azaldu, ezta lehenengo umea eduki nuenean ere. Bizitzan ez nuen beste irtenbiderik ikusten, ezkondu eta umeak edukitzearena baino. Bost izan nituen, bikiak barne. Feministek 65. urtean harrapatu banindute ...".

Elkarrizketatutako emakumeak:

- **Teresa Jauregi Intxaurraga, Arrigorriaga, 1940**
- **Consuelo Barañano Arruza, Arrigorriaga, 1940**
- **Marga Ormazábal Vega, Arrigorriaga, 1940**
- **Carmen Couselo Míguez, A Coruña, 1928**
- **Emilia San José Díez, Zaratamo 1936**
- **Juana López Maroto, Valdepeñas, Ciudad Real, 1932**
- **Mª del Carmen Herrero Gutiérrez "Uka", Santander, 1934**
- **Cristina Ruiz Etxaide, Arrigorriaga, 1922,**
- **Emilia Hierro Menchaca, Bº Aixarte, Arrigorriaga, 1929**
- **Paula Muro Elola, Donostia, 1948**
- **Mª Amparo Calvo Soria, 1941**
- **Lourdes Vázquez Moscoso, Galicia, 1950**
- **Fuensanta Pérez Martín, Valladolid, 1938**
- **Rosaura Díaz López, Balmaseda, 1921**
- **Raquel Aroca Alonso, Deusto, 1925**
- **Visitación Casais Lorido, Lugo, 1939**
- **Herminia Sierra Taranco, Sopuerta, 1930**
- **Pilar Lasagabaster Vitorica, Arrigorriaga, 1930**

Lana

Gerraosteko urteetan eta 60ko hamarkadan zehar, rolak eta estereotipo sexistak, lan emankorrari eta ugalketa lanari zegokienez, oso markaturik zeuden. Gizonak soilik ordaindutako lanetan aritzen ziren eta emakumeak etxeko lanetan. Gizonezkoek familia ekonomikoki mantendu behar zutela uste zuten eta emakumeek familiaren zaintzari ekin. Arrigorriagan emakumeek, fabriketan lan egiteaz gain, merkataritzaren zama ere eurek eraman zuten, bai etxeko behi-esnea edo ortuariak saltzen, bai negozio txikiak sortzen.

Atal hau egituratzerakoan, eremu publikoan emakumeen presentzia garrantzitsua azaleratzen saiatu gara, etxeko lanetatik eta zaintzatik kanpo burututako lanak.

Jarduera hauek agerian jartzea garrantzitsua da, honako ideia hau nahiko hedatuta baitago: emakumeak etxean geratzen zirela eta gizonak familiaren hornitzaile zirela lanera etxetik kanpo aterata. Elkarrizketatutako emakume askok diote eurek sekula ez dutela kanpoan lanik egin, beti etxean egon direla, baina euren gaztaroari buruz eta ezkondu aurretik egiten zuten bizimoduari buruz galdetzean, batzuek hamar edo hamabost urtez fabrikan lanean, edo dendan saltzaile, edo etxeren bateko arropa garbitzen ibiliak zirela kontatu ziguten.

Agerikoa da etxetik kanpo lanean aritu direna, batzuk luzaroan, baina egiten zituzten lan gehienak ugalketa eremuarekin zerikusia izateak (nahiz eta norberaren etxetik kanpo eta beste familia batzuentzat izan), soldata oso txikia jaso izanak edo lan horiek ezkongabe zirela egin izanak, egindakoak duen balioa galtzen duela dirudi eta emakumeak eurak ez direla egindakoaz konturatzen.

Lan esparruan, gizon eta emakumeen arteko bereizketa oso argia zen eta salbuespen bakanak zenbait emakume ezkongabe eta alargunen kasua zen, horien lana ugalketa eremuan izanik hobeto onartzen zen eta.

Ezkontza egoera ezin hobea zen, emakumeentzat naturala. Hori dela eta, ezkondu aurretik edo ezkondu ostean gertatutakoak ez zeukan garrantzi bera. Horregatik emakume askok ordaindutako lanik egin ez izanaren ideia erabat onartu dute. Horixe uste dute soilik lan horiek ezkondu aurretik edo alargun geratzean egin zituztelako.

Legez 1961era arte eta beraien senarrek eragindako presioagatik hainbat urte geroagora arte, behin emakumeak ezkonduta ordaindutako lanetan aritzeari uzten zioten ugalketa lanetan aritzeko. Emakumeetariko hainbatek, ezkondu eta gero beraien lanpostuetan jarraitu nahi izango zuketela komentatzen dute, baina ez zuten aukerarik izan, euren senarrak ez zeudelako eurekin ezkontzeko prest familiaren zaintzan bakarrik aritu ezean.

"Lan Foruak", 1938an aldarrikatu eta 1947ko uztailaren 6tik aurrera oinarrizko lege egindakoa, zera agintzen zuen: "Estatuak emakume ezkondua fabrikatik eta tailerretik aske utziko du". "Ezkonsari edo eztei-sari" deiturikoa sortu zen eta ezkondutakoan lanari uzten zioten emakumeei honekin ordaintzen zitzaien. Elkarrizketatutako emakume askok gogoratzen dute "ezkonsari" hau kobratu izana, eta eurentzat diru kopuru nahiko ederra irabazteko aukera bat izan zen. Bestalde, batzuek hanka-sartzea izan zela onartzen dute, hori eginda, 65 urtera heltzean euren pentsioa kobratzeko eskubidea galdu zuten eta.

Telefónica bezalako enpresek, garai hartan publikoak, emakumeen kontratuetan klausulak gehitzen zituzten esanez, behin ezkonduta, berriro lanera bueltatzen baziren senarraren baimena izan behar zutela.

1961eko uztailaren 22ko "Emakumearen eskubide politiko, profesional eta lan eskubideen legeak" sexuaren arabera eta espresuki soldataren araberako lan diskriminazio modu guztiak debekatu zituen. Urte horretatik aurrera, emakumeek ezkontzen zirenean, honako hauen artean aukeratu ahal zuten: lanean jarraitzea, familiaren zaintzarako 5 urtera arteko eszedentzia eskatzea edo lana uzteaz batera indemnizazio bat kobratzea.

Diktadurako arau zorrotzak malguagoak ziren ordaindutako lana etxean eginez gero, modu informalean, jostunen kasuan esaterako, edo senarrarena zen establezimendu batean (denda, taberna). Hor emakumeak ez ziren soldatapean agertzen.

Emakumeek fabriketan lan egiteaz gain, zaintzaileen rolarekin lotutako beste arlo batzuetan aritzen ziren, besteak beste inoren etxean "zerbitzatzen". Umeumetan hasten ziren lanean, haurrak zaintzen.

> ***"Ni 12 urterekin hasi nintzen lanean umeak zaintzen, gure ama sei seme-alabarekin (bost neska eta mutila) alargun geratu zelako, eta jan nahi izanez gero, guztiok lan egin behar genuen. Ez diot eman, bada, nik argizaria lurrari oinekin! Gero "las Capotinas" izenekoen etxean ibili nintzen. Oso arrain-saltzaile ezagunak ziren. Haiek arrandegian egoten ziren eta nik etxean dena egiten nien: garbitu, janaria prestatu…dena".***

Ordaindu gabeko lana dela eta, emakumeek kontatzen dute etxeko lanak oso baldintza gogorretan egiten zirela, urte askoan etxeetan ez baitzuten ez urik ez garbigailurik ez hozkailurik eduki. Beraz, askoz zailagoa zen dena eta etxeko lanetan ordu mordoa ematera behartuta zeuden. Andre batzuek soroan egiten zuten behar eta, etxeko lanez gain, goldaketan, landatzen, uzta batzen, behiak jezten eta abarretan aritzen ziren. Lanaren tamaina seme-alaba kopuruaren araberakoa zen. Emakumeetariko batek honelaxe kontatzen du:

> ***"Nik zazpi seme-alaba eduki nituen, zeren alaba bat hil egin baitzitzaidan. Astoaren antzera egin dut behar, esneketari, fruta saltzaile, arrain saltzaile…denetarik egin***

dut. Gero, Goikirin baserri bat izan genuen, eta hor bai lan mordoa: ortua, egunero herrira saltzera jaisten genuen esnea, ...Errekara garbitzera ere joaten nintzen, eta baldea buruan joaten nintzenean ordu erdi edo gehiago ematen nuen. Garbigailua gure bizitzetako poza izan zen. Ez zen oraingoak bezalakoa, arropa zanpatu egin behar zenuen baina, hala eta guztiz ere, irtebide ona izan zen."

"Txarrena umeen pixoihalak garbitu behar izatea izaten zen. Ezin zen lixibarik erabili eta orbanak kentzeko pixoihalak txinborekin txapan irakiten jartzen genituen. Lan handia ematen zuten".

Etxean ere nesken eta mutilentzako rolak oso markatuta zeuden. Ama zegoen bitartean, alabak kanpora irten ahal ziren lanera, baina lagundu behar izaten zuten, eta ama ez zegoenean etxeko lanen pisua eurengan erortzen zen:

"Niri lan handia egitea tokatu izan zait. Bost neba-arreba ginen, lau mutil eta bostok; beraz, etxean dena neuri tokatu zitzaidan. Baldea bete arropa hartzen nuen eta errekara garbitzera. Zazpi ginen etxean eta arropa asko zen. Eskerrak gure amak nebei ondo irakatsi zien. Ama zerbitzatzen aritu zen urte askoan; beraz, nebei beti esaten zien ezkontzen ziren egunean beraien emazteei lagundu behar zietela. Askotan nirekin etortzen ziren, eta pisu handia zeukan arropaz betetako baldea eramaten zidaten. Arropa hura guztia lisatu ere egin behar izaten nuen, bazkaria prestatu... Goiz jaikitzea betidanik gustatu zait. Beraz, dena oso goiz egiten nuen. Nebak lanean hasi zirenean, nik ere lan egin nuen, baina ordu gutxiago. Hortaz, etxeko zereginak egiten jarraitzen nuen. Hori bai, nire nebek oso laguntzen zuten".

Fabrikak

Fabriketan ibili ziren emakume gehienak langile aritu ziren. Salbuespen batzuk ere eman ziren: bulegoetan, ekonomatoetan edo gizarte-laguntzaile aritu zirenak. Urte horietan, 1960aren inguruan, gizon asko etorri zen familiarekin Arrigorriagara lan egitera. Euren egoera oso zaila zen. Hori dela eta, emakumeak izan ziren etxea bilatzen, nominen aurrerapenak lortzen, eta abarretan...laguntzen arduratu zirenak.

Lan honetan parte hartu duten emakumeek, garai hartan Arrigorriagan zeuden fabriketatik hiru nabarmendu dituzte: Hilados Ibaizabal, Papelera Española eta Pinturas Artiach. Hiruron artean, emakume kopuru ederrak egin zuen lan.

Hilados Ibaizabal

Hilados Ibaizabal edo Agirre, emakumeek estaten zioten bezala, Arrigorriagan oso ospetsua izan zen, herriko eta inguruko emakumeek bertan lan egin zuten eta. Elkarrizketatuek kontatzen dute 1925ean sortu zela eta 45 bat urtez egon zela zabalik. Emakume hauen esanetan, eskola amaitu eta gero, 14 bat urterekin hasi ziren fabrikan lanean. Garai hartan, gainontzeko fabriketan bezala, hemen ere gerrako alargunei eta diru-sarrera txikiak zeuzkaten andre ezkonduei lana ematen zitzaien. Hauetako batzuk El



Calerotik (Basauriko auzoa) edo Artaunduagatik ere etortzen ziren.

Langileak makinetan banatuta zeuden, emakume bi makina bakoitzeko. Gizonak ere bazeuden, baina makina bitan baino ez. Fabrika pabiloi handia zen, solairu bitan banatuta: behekoan irute lanetan aritzen zirenak, eta goikoan ehuleak ehungailuekin eta "zakugintza"-saila zeuden, zakuak egiteko lekua.

"Denboraldi batzuetan, espartzuarekin lan egiten zuten eta beste batzuetan, zumearekin".

Iruten zen espartzua abarketak egiteko ere erabiltzen zen.

"Orduan espartzuzko eta jutezko abarketak zeuden. Mordoilo batean, ipitza balitz bezala irun behar izaten genuen zegoen espartzua. Gero, "rubil" deitzen zen makina batetik, orraztailetik, mozorketatik eta beste makina batzuetatik pasatzen zen, hari bihurtzen zen arte".

Irute prozesua makina batean egiten zen. Makina horretan langile bakoitzak 19 txirrika batera zaindu behar izaten zituen. Hari guztia kontrolatzeko emakumeek tentsioan lan egiten zuten. Txirrikak zaintzeaz gain, adi egon behar zuten makinako espartzu soka berritzen joateko. Emakumeen iritziz egiten zuten lana ez zen zaila baina bai arriskutsua.

Haria biraka zebiltzan txirriketatik jeisten zen sokan. Orduan, apurtuz gero, lotu egin behar genuen eta, jakina, begirik kendu gabe geunden".

Adi ibili behar zenuen, ezin zinen gelditu eta. Eskuaz txirrika bat baino ezin zenezakeen geldi. Eskua ardi-larru antzeko batekin babesten genuen. Gelditu egiten zenuen eta lanean jarrai zezan lotu egiten zenuen, zeren, agian, bestea (txirrika) asko loditzen ari zen".



"Zumearekin lanean aritzen zinenean, beste "bankada" batzuk jartzen zituzten, 19 izan beharrean 38 ziren. Bikoitzak ziren, baina hariak txikiagoak. Apur bat zailagoa zen, baina ez zen hain zikina".

"Deskuidurik txikienean atzamar bat gal zenezakeen, edo eskua! Hari bat apurtzen zenean giltzak gelditu behar baziren, eskuak babesteko ardi-larru zati bat geneukan. Horretan zetzan nire lana: haria ondo zihoala zaintzen eta apurtu ez zedin ...bestela lotu egin behar zen, eta gero jarraitu".

Goizeko txandan lan ordutegia 6:00etatik 14:00etara artekoa zen, eta arratsaldeko txandan 14:00etatik 22:00ak artekoa. Behin udan argi murrizketak egon ziren, eta astean sei egunetan lan egin beharrean, hirutan egiten genuen. Baina gero negu horretan *"ordu guztiak sartu behar genituen eta 6:00etatik 14:00etarako txanda 5:00etan sartzen zen. Etxetik 4:30ean irteten ginen"*, eta fabrikaraino oinez joaten ziren. Arratsaldeko txanda ere 23:00k arte luzatzen zen.

"Etxera 23:30ean heltzen ginen". 20 minutu ondo ibiliak".

"Denboraldi batean zehar fabrika ez gelditzeko gaueko txanda bat jartzea pentsatu zuten. Ia bost astez egon ginen gauez lan egiten. Goizaldeko 5:00ak heltzen ziren eta ezin ginen zutik



egon, eta hori neska gazteak izanda. Azkenean lana gogorregia zelako etsi egin zuten".

Fabrikan hotz handia egiten zuenez, arropa gehiago jantzi behar zuten; gainera beti zutik lan egiten zuten. Gosaltzeko edo "arratsaldeko ogitartekoa jateko" ordu erdi zeukaten, eta buelta makinara. Beraien makinetatik txirrika kentzeko haria eramaten zuten, eta gero ehungailuetara igotzen zen.

"hotz ikaragarria egiten zuen eta arropa asko jantzita egoten ginen (...)bufandekin joan behar izaten genuen".

Emakumeak bat zetozen fabrikan langileen artean giro ona zegoela esterakoan. Baldintzak hain ziren gogorrak denentzat, elkarri laguntzen saiatzen zirela.



"Bazegoen langileburu bat, seme bat zeukan gerrako alarguna zena, gurekin oso ondo portatzen zena. Norbait hilerokoa jaitsi eta txarto sentitzen zenean, "makina zaintzen" zien, eta beste sail batera bidaltzen zituen atseden hartzera".

Lan baldintzei dagokienez, emakume langileek ez zituzten euren eskubideak ezagutzen. Haietariko batek kontatzen du fabrikan Kataluniako Ehungintza Hitzarmena zegoen indarrean, baina "urteak geroago" jakin zutela, ordurako fabrikatik kanpo zeudenean. Ez zeukaten maila igotzeko aukerarik, orduko 3 pezeta ordaintzen zizkieten eta urtean 8 egun jai ematen zizkieten. Kontraturik zeukaten galdetzerakoan, hainbatek "finkoak" zirela erantzun dute, baina inork ez du kontraturik edo antzeko agiririk gogoratzen.

"Garai hartan ez zegoen gizarte-segurantzarik, ez zen existitzen; beraz, izanda eta kobratuz gero, pozik. Gaixotuz gero ere ordaindu egiten ziguten, baina beharbada gutxiago".

"Orduan "finkoa" zinen, eta honek esan nahi zuen han zeundela zuk alde egin nahi zenuen arte edo fabrika itxi arte. Ezkontzen zinenean alde egiten zenuen, baina kontraturik...ez dut gogoratzen".

"11 urte eta erdi eman nituen bertan lan egiten, eta 99 pezeta irabazten atera nintzen".

"Urte horietan ulertzen zen emakumeen lanak senarrei laguntzeko zirela". "Nik garai hartako 90 pezeta irabazten nituen, galtzerdi pare bat erosteko ailegatzen zitzaidan, besterik ez".

Betetzen zuten lana oso zikina zen. Mantalak eta ilerako zapiak eramaten zituzten, denak eurek egindakoak, zeren enpresak ez zien inolako uniformerik ematen.



"Ilea apur bat zapitik kanpo geratuz gero, hautsagatik zurituta geratzen zela ikusten zenuen".

"Ez genuen osasun-arazorik izan hautsagatik. Gerra pasatutakoak ginen, eta nik uste dut immunizatuta geundela".

Garai horretan ez zen ez grebarik, ez lan protestarik bizi izan, baina langileetariko batek bai gogoratzen du behin Bilbora joan behar zutela esan zietela, Franco etorri eta "agurtzera" joan behar zutelako. Hori dela eta, tren geltokira hurbildu zen txartela ateratzera; izan ere,…

"…kobratzera joaten zinenean txartela aurkeztu behar zenuen, Franco etorriz gero agurtzera joan behar zenuela uste zelako; derrigorrezkoa zen. Ni, jakina, Arrigorriagan geratu nintzen, gizon hura ikustera joateko inolako gogorik ez nuen eta".

Papelera Española

Bilbon egoitza soziala zuen "La Papelera Española" delakoa, eratu 1901eko abenduan eratu zen, eta bere ibilbideari hurrengo urtearen hasieran ekin zion. Nicolas Mª Urgoiti zuzendari nagusi izendatu zuten. Hainbat tailer eta ordezkaritza zituen, euren artean Arrigorriagakoa. Hau 1935ean zabaldu zuten 455 langilerekin.

Elkarrizketatutako andreek azaldu duten bezala, Papelera fabrikak Arrigorriagan garrantzi handia izan zuen, herriko askok bertan lan egin zuten eta. Askotan, familia bereko hainbat kide (ama, aita eta semealabak) lantalde berean zeuden; beraz, Arrigorriagako bizilagun gehienen oinarrizko euskarria zen.

Nolabait, esan liteke Papelerak herritarren egunez egunekoa marrazten zuela, nahiz eta bertan lanik egin ez. Esaterako, fabrikako sirena aipatzen dute, "adarra" deitzen zutena, sartu eta irten baino apur bat lehenago jotzen zuena txanda aldaketa markatzeko; beraz, txandak noiz ziren herri osoak zekien.

"Goizeko adarrak 5:45ean jotzen zuen, eta "poztekoa" zen, herritar gehienen bizibidea zen eta. Bizitza eman zigun".

Emakumeek hamaika lan burutzen zituzten. Hauetariko bat maneiu-gelan egiten zuten "papera pasatzen".

"Adibidez, ebakitzailetik ateratzen zen metro eta erdiko paper mordoa ekartzen zizuten. Orduan eurek bazekiten akatsak zituztela; hariak, zimurrak…Mahaian jartzen zizuten, papera kargatzen zenuen eta orriak binaka pasatzen zenituen, txarra kentzen zenuen, berdindu egiten zenuen, resmak edo bostehunekoak egiten zenituen, kontatu eta beste



mordo on batean multzokatzen zenuen. Horixe zen prozesua".

Behin papera berrikusi eta gero, "besada" hartu eta pisatzera eramaten zuten, zenbat paper berrikusi zuten jakiteko. Langile bakoitzak egunero bete beharreko zeregina zeukan eta …

"…debora soberan zenuela ikusiz gero, kontrolatzailea etortzen zen. Makinaren arabera paper hobea edo txarragoa ateratzen zen. Paper ona etorriz gero, lana amaitzea errazagoa zen".

"(…) ez zidan nire lana amaitzeko astirik ematen eta oso txarto pasatzen nuen. Gaur egun, eskuetan koaderno edo paper bat daukadanean, papera pasatzen nueneko mugimendu mekaniko bera atertzen zait".

Beste emakume batzuk "zenbatzaile" lanetan aritzen ziren, eta orriak banan-banan zenbatu behar izaten zituzten. "Paper kizkurra" ere ateratzen zuten, eta haietariko bat edo batek inprentan lan egiten zuen.

"Garai hartan aretoan 100 bat emakume ginen. Gehienak emakume gazteak ziren, baina "gerra garaikoak" ere bazeuden, gerrako alargunak. 10 edo 12 bat ziren, besteak baino nagusiagoak eta emakume talde bat zegoen oso adin-nagusikoa zena eta gaixorik zegoena".

"Luisita Valiente, ezkongabea eta oso nagusia zena dut gogoan. Garai hartan ez zegoen mediku epaimahairik eta ez zen ezintasunik ematen, eta emakume hau, makulua eskuan, Cubo baino gorago zegoen Larrasko auzotik etortzen zen. Emakume hauei, zailtasun handiak zituztenez, oso erabilerraza zen "kristal papera" izenekoa ematen zieten, baina paper-pilara eramateko ezin ziren mugitu ere egin, eta gazteagoak ginenok laguntzen genien. Ezinezkoa zen emakume haiek eraman ahal izatea".

Beraien lanaldia 8:00etatik 14:00ak artekoa eta 14:00etatik 18:00ak artekoa zen, eta "lana oso ona



eta garbia zen". Enpresak emandako mantal zuria eramaten zuten soinean.

Orokorrean, gizonek emakumeek baino gehiago irabazten zuten, emakumeek kontrolatzaile kargua baino gorago egiteko aukerarik ere ez baitzuten :

"Guk txikikeria irabazten genuen eta ez zegoen mailaz igotzeko aukerarik. Lanpostuan gora egitea oso zaila zen. Kategorian hurrengo postua kontrolatzailearena zen. Hau, behin paper "ona" amaituta zegoenean, ea "hirugarrenen" bat, hau da, paper txarren bat utzi zenuen begiratzera etortzen zen. Baina postu horretara heltzea oso zaila zen, pertsona jakin batzuekin nolabaiteko harremana izan behar zenuen…".

Gizonak eraikin berean zeuden, baina beheko solairuan. Eurek lan gogorragoa egiten zuten, oso biribilki handiak mugitzen zituzten eta. Euren lanak fabrikazio makinekin lotura handiagoa zeukan, eta soldata handiagoak jasotzen zituzten. Solairu horretan ere papera bezeroak eskatutako tamainaren neurrira mozten zen. Gizonek paper-pilak karga-jasogailu batekin igotzen zituzten, eta "gurdizainak" emakumeak zeuden mahaietan banatzen zituen. Gero, papera biltzeko beste gela bat zegoen, eta hau ere emakumeek egiten zuten.

Garai hartan soldata ez zen oso handia, nahiz eta batzuetan, lan handia zegoenean, aparteko ordue-

kin osatzen zen: gehiengoak onartu egiten zuen, "aparteko" diru hori eurentzat baitzen, ez ohiko soldatarena bezala, familiarentzat zena.

"Oso garai txarrak ziren, eta barruan soldata zeraman gutun-azala amari ematen nion, eta oso zaila zen zerbait erostea irabazten nuenarekin. Cuando ibas con algo más de dinero porque habías hecho horas extras, la madre me decía: eso quédatelo tú que en vez de ocho horas has trabajado diez".

Aparteko orduak egiteagatik diru gehiagorekin joaten zinenean, amak zera esaten zizun: "hori zuretzat zortzi orduz lan egin beharrean hamar bete dituzulako".

Nahiz eta, orokorrean, emakume langileen arteko harremana ona izan, emakume batzuek gogoratzen dute, lanean ari ziren bitartean, begira zeuzkaten arduradunak oso zorrotzak zirela, arduradun emakumeak bereziki. Fabrikan ez zegoen jantokirik, beraz, eguerdian ateratzen zirenean, emakume gehienek bazkaria prestatu behar zuten etxekoentzat.

Enpresak Poltsan kotizatu zuen, 1992an ordainketa-etenduran eta 1994an behin betiko porrotean sartu ziren arte. Eta hori guztiori Eusko Jaurlaritzak azken urteetan hainbat diru-laguntzarekin aurrera irteten laguntzeko saiakera eginagatik. Enpresa ez zen errentagarria, besteak beste, inguru-kontrolak handituz joan zirelako, eta ekoizpen merkeagoak zituzten beste herri batzuen lehiagatik.

Elkarrizketatutako guztiak bat datoz esatean 1983ko uholdeetan fabrika beherakada garai batean sartu zela, inoiz indarberritzea lortu gabe, 1994an betiko itxi zen arte.

Pinturas Artiach

Artiach-fabrika udaletxea eta Nerbioi ibaiaren artean zegoen, jatorriz irin errota bat egon zen lekuan, (hortik dator egungo "Madalen errota" kalearen



izena). Geroago, 1737ko uholdeen ostean, errota berriak eraiki ziren. Hainbat jaberen eskutik pasatu ondoren, Artiach familiak pintura fabrika bihurtu zuten eta 1983an uholdeek hondatu zituen. 1987an, azkenik, behera bota zuten. Fabrikako lurretan familiaren etxetzarra zegoen, eta honen eskuma aldean fabrikako pabiloiak.

Eduardo Artiach, ingeniaria, beste bazkide batekin batera pintura enpresaren sortzailea izan zen. Gazte izanik hil zen, eta bazkideak eta beste anaia batek hartu zuten euren gain, seme-alabak oraindik oso txikiak ziren eta.

Elkarrizketatuetariko batek fabrika txikitatik ezagutzen zuen, bere aitaita esparru horretan kokaturiko etxe batean bizi izan zelako, eta emakume hau bertan hasi zen lanean 17 urte zeuzkanean. Proba bat egin ostean, lanpostu bat hutsik zegoela esan ziotenean sartu zen. Administrari laguntzailea zen eta kontabilitatea eramateaz arduratzen zen.

"Fakturen datu batzuk eta fitxa batzuk sartu behar nituen makina erraldoi batean (gaurko ordenagailu baten modukoa zena), eta makinak fitxak eginda ateratzen zituen".

"Fabrika txikia zen, 50 bat langile-edo edukiko zituen. Hainbat sail zeuden: bat "isolatzaileak" zen, beste bat "pinturak" eta beste bat "Bikolin" deitzen genuena, formulak horrela deitzen

zen enpresa batekoak zirelako. Sail horretan arte grafikoetarako bernizak egiten zituzten.

Fabrikan langile gutxi zeuden, gehienak Hilados Ibaizabaleko aspaldiko langileak ziren, behin irundako gaien fabrika itxita, Artiachen sartzea lortu zutenak. Emakume hauek gehienak isolatzaileen sailean sartu ziren, bertan enbalatzen eta horrelako beste zeregin batzuetan aritzen zirela. Dena den, ez zen oso lan espezializatua.

Bulegoan, berriz, administrari eta kontulari lanetan aritzen ziren arduradunak emakumeak ziren; guztira sei lankide. Euren artean Palmira Palacios, MADALEN elkarteko sortzailea eta aurrerago ere aipatuko duguna.

Horiez gain, nagusi bakoitzaren administrariak zeuden, aldatuz zihoazenak. Bulegoetako giroa ona zen. Ordutegia 8:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara zen, baina malgua zen: goizez ordu erdi beranduago irten ahal ziren eta arratsaldez lehenago amaitu. Udan jarraian egiten zuten behar: 8:00etatik 15:00etara. Ez zen fabrikan bazkaltzen, ez zegoen janlekrik eta.

Emakume eta gizonen arteko soldaten ezberdintasunei buruz, ez daukate frogarik emakumeek gutxiago kobratzen zutela esateko, baina :

"(…) seguru baietz, zeren garai hartan emakumeek beti gutxiago kobratzen zuten. Bulegoan geunden emakumeen artean ere aldea zegoen: antzeko zereginak egiteagatik batzuek besteek baino gehiago kobratzen zuten. Dena den, familiarteko enpresa bat zen, eta sailek nagusi bana zuten, batzuetan Artiach familia berekoa…asko aldatzen ziren, eta bakoitzak berarekin etortzen zen idazkaria zeukan. Idazkari hauek nagusiak esaten zuena kobratzen zuten, normalean han geundenok baino gehiago".

Urte haietan kontratua edukitzea arraroa zen, nahiz eta Gizarte-segurantzan kotizatu. Inork ere ez zeukan argi lan baldintzak edo lan eskubideak, behintzat emakumeen artean. Lotura sindikalak zeuden, baina langileen lan baldintzak defendatzearren ez dirudi gauza handirik egiten zenik.

"Zer egin behar zenuen ondo zenekien, zein zen zure ordutegia, eta oporrak noiz hartzen zenituen, besterik ez".

"Orduan, ahozko, ikastaldi-kontratuarekin sartzen zinen, askotan ez zena sekula gauzatzen".

"Behin batean, gutxiago kobratzen genuenoi, gehiago irabazten zutenei baino soldata igoera handiagoa ekarriko zigun hitzarmena egin genuen, baina urtebete soilik iraun zuen, gehiago irabazten zutenak ez zeuden ados eta. Gau osoa eman genuen fabrika barruan itxita, baina ez genuen txintik lortu".



"Gasteizen grebak egon zirenean, greba orokor bat planteatu zen, eta Artiachen grebarekin bat egin nahi izan genuen, baina ez ginen ausartu. Piketeak fabrika ixtera etorri ziren arte itxaron genuen eta orduan irten ginen. Hurrengo egunean nagusiaren aldetik errepresaliak egon ziren".

"(…)goizean goiz gure zain egon zen atean, eta banan-banan bere bulegotik pasarazi

zigun azalpenak eskatzeko. Bila etorri zitzaizkigulako irten ginela esan genion. Baina, egia esan, ez ginen oso langile borrokazaleak".

Uholdeen ostean, enpresak Zornotzan alokatutako oso garestiak ziren pabilioi batzuetara eraman zuen lana. Nahiz eta udaletxeak ahalegin handiak egin enpresa berriro Arrigorriagara ekartzeko, eta lurrak eskaini, negoziazioetan ez ziren ados jarri eta joan egin ziren. Arrigorriagarrentzat tokialdatzea zekarren, pabilioia garestia zen, eta hau guztia gutxi balitz, Bikolin enpresa Alemaniarrarekin zeukaten kontratua amaitu egin zen eta honela Artiachen ondoen zihoan saila gelditu egin zen.

Hornitzaileekin zorrak edukitzeak, egoera ekonomikoa gero eta txarragoa izateak, enpresa familiarena izateak eta kudeaketa eskasak enpresaren gainbeheran lagundu zuen, 83ko uholdeek eman zuten makilakadaz gain.

"Kale gorrira joan ginen. Soldatak Bermatzeko Funtsa eman ziguten eta besterik ez. Sindikatuak txarto aholkatu zigun eta ez ziguten deus eman".

Denboraldi labur batean, Artiachek ekonomatua eduki zuen, Vegé markako ekoizkinekin hornitua.

"Fabrikako jendeak horixe nahi zuen, eta bulegoko jendearen artean eramaten genuen. Ez geneukan biltegirik, hortaz, eskaerak katalogo baten bitartez egiten genituen, baina herriko dendekin konparatuz prezioen aldea hain zen txikia ez zuela merezi".

Elkarrizketatutako emakumeak:

- **Luisa Azcona Nuñez, Arrigorriaga, 1927,**
- **Ángeles Mairal Urrutia, Arrigorriaga, 1926**
- **Mª Rosario Aranzabal Arebiotorre, Arrankudiaga, 1925**
- **Emilia San José Díez, Zaratamo, 1936**
- **Asun Zarrabeitia Artola, San Miguel de Basauri, 1946**
- **Paquita Azcona Bocos, Arrigorriaga, 1932**
- **Rosario Gutiérrez Pérez, Arrigorriaga, 1932**
- **Karmele Ibarrondo Irazabal, Arrigorriaga, 1949**
- **Charo Bartolomé Barriuso, Arrigorriaga, 1925**
- **Mª Begoña Ibarretxe Maeso, Arrigorriaga, 1941**

Merkataritza eta lanbideak

Arrigorriagako Merkatari Elkartetik, arlo honetan emakumeen presentzia garrantzitsua oso argi utzi dute. Partaideetariko bik, herriko dendetan emakumeak zuen paperari buruz hitz egiteko, izugarrizko memoria ariketa egin dute.

Arrigorriagan emakume asko hainbat saltokitan aritu izan dira lanean, adibidez, ekonomatuetan, janari-dendetan, arrandegietan, harategietan, baita elikagaiak saltzearekin loturiko ekintzetan edo zerbitzuetan ere, esne-saltzaileen, baserriko produktu saltzaileen edo arropa egiten zutenen kasua den bezala.

Andre merkatarien papera aztertu ostean, arreta azken talde honetan jarriko dugu, "lanbideak" deitu duguna, eta azterlan honetako partaideen arabera esanguratsuenak bildu ditugu berton.

Arrigorriagako emakumeentzat salerosketa txikiarekiko arduraldia bizimodua irabazteko modu ona zen, baita ezkondu eta gero ere, baina une horretan, gehienetan, etxetik kanpoko ekintzak alde batera uzten zituzten ezkontza bizimoduaz arduratzeko. Sarritan, ezkontzeko data zeukatenean enpresak likidazioa prestatzen zieten. Saltokietan, berriz, ezberdina zen. Izan ere, askotan, nahiz eta emakumeak saltokiaren jabeak izan ez, aurrera ateratzen zutenak eurak ziren, eta bertan lan egitea ez zegoen txarto ikusita, ezkonduta egon arren.

Salerosketa "emakumeen kontua" zela uste zen, tradizioari begira eurak izan dira-eta etxeko hornikuntzaren arduradunak.

"Emakumeok ginen dendetan agintzen genuenak, beti izan garelako ausartagoak, kezkatsuagoak eta baita ekintzaileagoak ere. Gizonak lan eske fabriketara joaten ziren, eta emakumeek negozio txikien bidez diru apurra lor genezakeen (nahiz eta askorik ez izan), etxea aurrera atera, umeak zaindu, gurasoak... eta abar. Gizonak lanetik etorri eta tabernetara joaten ziren. Emakumeok bizitza soziala goizez egiten genuen, erosketak egiten genituen bitartean, egunaren gainontzeko orduak etxea eta familia zaintzen ematen genituen eta".

Emakumeek negozioa eraman ez ezik, familiak herriarekin lotzen zituen sare osoaren muin bihurtzen ziren. Salerosleen artean harreman handia zegoen:

"Norbaiten alaba lanik gabe egonez gero, jakin egiten zen, eta zerbait bilatu behar zitzaion, edo familiaren batek beste beharrizanen bat izatekotan berdin jokatzen zen. Horrelako egoera batean, emakumeek "euren kontaktuak egiten" zituzten, eta azkenean neskarentzat lana aurkitzen zuten".

Bestalde, 60ko hamarkadaren amaieran, emakume batzuek beste batentzat lanaldi partzialeko lana egin zezaketen negozioetan ere lan egiten zuten, armadendan, adibiderako:

"Armeroa eskopetak, zenbait arrantza-tresna, salabardoak, eta abar, egiten ziren tailerra zeukan. Tailerrean bere familia osoa aritzen zen elkarlanean, baina lan handia zegoen garaietan, emakume batzuei etxetik bertatik lan egiteko enkargua ematen hasi zitzaizkien. Emakume horientzat lana osagarri ekonomikoa zen. Gehienek ez zuten etxetik kanpo lanik egiten, eta seme-alabak nagusiak ziren. Hortaz, goizean etxearen edo ortuaren ardura zuten eta arratsaldean arrantza-tresnak egiten zituzten. Lan kopurua eurek aukeratzen zuten, horretarako astiaren arabera. Horrela, piezak ematen zizkieten eta eurek muntatuta bueltatzen zituzten tresnak".

"Lanbideei" eskainitako atalari dagokionez, lerro hauek irakurtzeak ezagutu zituztenen oroimena piztea espero dugu, emakume haien irudiak, euren eguneroko bizitzan presente zeudenak, borrokalari nekaezinak, ugalketa lan gogorraz gain bizi publikoan agerpen gutxi aintzatetsia eta gizarte mailan oso gutxi balioetsia izan zutenak, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoak.

Lanbideak eduki zituzten emakumeetatik, batzuk izen-abizenekin agertuko dira euren lanean bakarrak izateagatik edo herrian oso ezagunak izateagatik.

Honek ez du esan nahi emakume batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak zirenik: baina ez da erraza izan izendatu gabe egotea eta anonimatuan irautea nahiago zutenak, beraien lanbideei buruz arazorik gabe hitz egiten zutenak eta kontatzeko ez daudenen artean oreka aurkitzea.

Emagina

Mediku arreta etxez etxe egiten zen garai batean. Lan hau oso espezializatua ez zenean, emaginen lanak emakumeentzat ezinbesteko garrantzia zeukan. Lehenengo umea edukitzen zutenean, ia ez zeukaten informaziorik, emakumeek "pasatu beharreko" zerbait naturaltzat jotzen zelako. Emaginak umea edukitzeko uneaz arduratu ez ezik, ama hasi berriak lasaitzen eta umetxoak aurrera ateratzeko oinarrizko ezagutzen berri ere emateaz zien.





Arrigorriagan, urte askoan, elkarrizketatutako emakume gehienek maitasunez eta esker onez gogoratzen duten emakumea izan zen emagina, bere dedikazioagatik eta euren seme-alabak mundura ekartzeko orduan bere eskutik jasotako arretarengatik.

Teodosia Ortega 1890an jaio zen Gaztelako (Burgos) herri txiki batean eta 1983ko irailaren 4an hil zen, 93 urte zituela. Emagina izateko Bilbon ikasi zuen, eta 1926an titulu ofiziala lortzeko azterketa egitera Valladolidera joan zen. Ordutik aurrera bere lanbidean aritzen hasi zen Arrigorriagan, eta 36 urtetan zehar bertako emagin "ofiziala" izan zen, gerraren ondorioz 1936 eta 1937an bere jarduera eten behar izan zuen arren. Gerran Basurtoko Ospitalean ere emagina izan zen, baita ospitale frantses batean ere, behin bonbardaketetatik ihes egin eta gero. Teodosiak 8 seme-alaba eduki zituen. Bere alabetariko bik, Visitación eta "Teotxu", bere begiratokian eserita gogoratzen dute, puntua egiten edo beste edozein zereginetan, bere bila joaten ziren arte emakumeren bati umea edukitzen laguntzeko.

"Etxearen eta familiaren zaintzaz arduratzen zen, baina deitzen ziotenean, dena utzi eta emakumeei umea edukitzen laguntzera joaten zen".

"Emakume modernoa eta pinpirina, bizia, langilea eta oso berritsua zen".

"Garai hartan, jaiotza ugari zeuden eta horrek lana ekartzen zuen. Emakumeek eguneko zein gaueko edozein ordutan edukitzen zutenez umea, beti egon behar zuen prest. Umea eduki berri ziren emakumeen senarrak bere bila gurdian, asto gainean edo beste edozein garraiobidetan etortzen ziren. Batzuetan ez zeuden umea edukitzeko prest eta sarritan bueltatu behar izaten zuen. Senarrak urduri etortzen ziren, eta bera korrika joaten zen une horretan egiten ari zena bertan behera utzita. Gero beti eskertzen zioten: bataio guztietara gonbidatzen zuten!".

Emakume ezkonduak lanean aritzea arrunta zenez, Teodisiaren familia harro zegoen bere alaba herriko emagina zelako, eta bere lanari begira bizi ziren.

"(…) titulua horman eskegita geneukan, betidanik".

Esne-saltzaileak

Arrigorriagako baserrietako emakume asko beraiek egunero jezten zuten esnea saltzen aritu ziren. Salmentaz gain aurreko prozesu guztiaz arduratzen ziren: behiei jaten eman, ukuiluan sartu eta atera, eskuz jetzi, eta abar. Zeregin horiek guztiak egiteko oso goiz esnatzen ziren, gero, goizeko 9ak aldera, Arrigorriagara jaitsi behar zutelako (batzuk Abusura edo beste leku batzuetara joaten ziren). Garai hartako bide gehienak asfaltatu gabe zeuden. Hori zela eta, kontu handiz joan behar zuten, batez ere euria egiten zuenean eta basaz betetzen zenean.

Ontziratutako esnerik ez zegoen garai hartan, Arrigorriagako auzoetan esne-saltzaile ugari zegoen.

"Bezero asko zegoenez, guztiek zeukaten nori saldu. Egiten zutena zen guneak banatu. San Joan auzoan, esaterako, 5 edo 6 zeuden: Concha Etxabe, "Ipiñatarra", "Ibargoititarra", "Altunaren emaztea", Simona, "Garmendiarena, …".

Gainontzeko emakumeen moduan, esnea saltzeaz gain, etxeko zereginak egiteko ardura ere bazuten, eta



herrira jaisten zirela aprobetxatuz erosketak egiten zituzten. Janaria prestatzeko eta zereginak egiteko (baserrira ura eraman, eskuz garbitu, …) denbora justuarekin bueltatzen ziren. Egun osoan zehar gelditu barik lan egiten zuten, eta oporrik gabe, animaliak ezin zirelako gobernatu barik eduki, esnea egunero saltzen zen eta, igandeak barne.

Gainera, baserriko emakumeek ortuariak Arrigorriagako dendetara ekartzen zituzten saltzera, eta eurek ekoizten ez zituzten gauzak erosi egiten zituzten, adibidez, olioa, fideoak, eta abar.

Baserri ezberdinetan bizi ziren familiei, ereitea, uzta biltzea, eta abar egitea tokatzen zitzaienean, elkarri laguntzen zioten, hainbat egun irauten zuen txerrihilketan ere bai. Horretarako, tartean zeuden familiak baserri batean edo bestean elkartzen ziren eta bazkariak antolatzen zituzten.

Emakumeak lan asko eta ezberdinen ardura zuten, eta seme-alaben laguntza ezinbestekoa zen. Esnea saltzen laguntzeko, neba-arreba txikiak edo senide nagusiak zaintzeko, ura ekartzeko, eta abarretarako, familia osoak ematen zuen denbora eta esfortzua.

"Zazpi bat urte nituenean, eskolara astoarekin eta esnearekin jaisten nintzen, orain Batzokia dagoen lekuan astoa lotzen nuen, eta atsedenaldian esnea banatzera joateko aprobetxatzen nuen. Nik sekula ez neukan atsedenaldirik".

Ekoizpena apur bat urria zenean, esnea "bedeinkatu" egiten zen; hau da, ur apur batekin nahasten zen, haurtxoak elikatzeko zenean izan ezik; orduan esne garbia saltzen zuten.

"Esnea neurtzeko litro beteko neurria geneukan, tankea zeritzona".

"Esne-saltzaileek, salmentan aritzen ziren beste emakume batzuen moduan, dirua gordetzeko poltsiko ugaridun amantalak eroaten zituzten, noranahi joanda ere. Garai hartan esne-saltzaile guztiak horrela ibiltzen ziren".

Dendariak: janari-dendak, joskintza-dendak, arrandegiak, harategiak, burdindegiak…

Negozio txiki hauetariko asko senar-emazteek zeramatzaten, edo baita familia osoek ere, baina arduradunak emakumeak ziren.

"(…) Albizuarena, Gandariasena eta Benitorena, denak janari-dendak; Pasiega eta Sabi, joskintza- eta arropa-dendak ziren. Juanitarena, edo "las Amaias"ena, janzteko arropa, etxeko arropa, ontziteria, eta abarrena, zen. Juliren harategia zegoen, Lizerazu eta Espe ere bazeuden, azken bi horiek burdindegiak ziren. Andresarena izan zen Arrigorriagan egon zen lehenengo supermerkatua".

"Hainbat ekonomato ere bazeuden. Bat paperfabrikan, geltoki ondoan, beste bat orain Batzokia dagoen lekuan, eta beste bat El Caserío aldean, pentsu eta animalientzako beste produktu batzuk saltzeko lekua".

Dendetan familia bereko hainbat kidek egiten zuten lan. Bigarren etxe baten modukoak ziren, seme-alabek eskolatik irten eta gero dendetan laguntzen zutelako, etxerako lanak egiten zituzten edo bertan egoten ziren, beste barik, itxi arte.

Orduan ez zegoen hainbeste gauza erosteko. Hortaz, produktu asko eskatu eta eskuz egiten ziren, adibidez, galtzerdiak. Horrela, eserita denbora luzea ematen zuten emakume nagusiak joskintza-dendatik





eskatutako galtzerdiak egiten aritzen ziren. Makinaz josten ere irakasten zieten. Juanitaren dendan emakume askotxok ikasi zuen.

"Orduan arropa guztia etxean egiten zen, ia ez zegoen ezer erosteko".

Jenero ona lortzea ere zaila zenez gero, emakume horietariko batzuek saltzaileek eskaintzen zietenarekin pozik ez zeudenez, kanpora jotzen zuten oihal bila:

"oihal onak erosteko Bartzelonaraino ere joaten nintzen; pieza handiak erosten nituen, eta heltzen zirenean, zati bitan mozten genituen eta erdia, gurearen antzeko estilokoa zen Ugaoko denda batera eramaten genuen".

Denda askorentzat, ekonomatuak zabaltzeak, salmentei zegokienez, oso jaitsiera handia ekarri zuen. Ekonomatuetan produktuak merkeago ateratzen ziren, eta eskura ordaintzen zuen jendeak nahiago zuen apur bat aurreztea. "Betiko" dendek ezin zuten salneurri horiekin lehiatu.

"Guk kanpoko bezero ugari geneuzkan, antzinako erara erosten jarraitzeko beharra zeukan

baliabide gutxiko jendea, behar zutena ematen genien eta diru sarrerak eduki ahala ordaintzen zihoazen; gaurko "epeka ordaintzea" bezalako zerbait. Dirua takada batean gastatu ezin zuen konfiantzazko jendea zen, eta eurei esker bizirik irautea lortu genuen".



Lan baldintzei zegokienez, dendetan lan egiten zuten emakumeek eta gizonek ez zuten gizarte-segurantzan kotizatzen, hasiera baten ez zegoelako, eta gero soilik "ez zekitelako".

"Ez dut gogoratzen gizarte-segurantzarik edo antzekorik zegoenik. Kotizatzearena beranduago izan zen. Gure aita-amak ez zuten sekula kotizatu, eta guk, dendan lan egin zuten nire ahizpek eta nik ez genuen kotizatu oso berandura arte".

Dendez gain, Bermeotik ekarritako arraina saltzen zuten emakumeak egon ziren. Egunero goizean goiz arrain bila joaten ziren eta, ondoren, kalean saltzen zuten. Emakume horiek egunero egiten zuten lan, eguraldi txarra gorabehera.

"Arrain-saltzaileek Bermeotik ekartzen zieten arraina kalean saltzen zuten, baina beranduago, Margari bezalako bizitza osoko arrain-saltzaileek, arrandegia ipini zuten".


"Lan gogorra zen, hor egon behar zelako, eguraldi ona edo txarra egin…".

Arrain-saltzaileek goizez egiten zuten lan, eguneko arraina saltzen, baina gainontzeko emakumeen moduan, gainera, etxeaz eta seme-alabez, edo garaia heltzen zenean, gereziak batzera joatea bezalako beste noizbehinkako lan batzuk egiteko ardura zuten. Garai hartan, gereziondo pare bat alokatzea eta fruitua batzea gero saltzeko oso arrunta zen.

50eko hamarkada inguruan, arrain-saltzaile batzuk postu finkoak ipintzen hasi ziren, kalean egoten jarraitu arren. Apur bat geroago bat edo batek arrandegia zabaldu zuen.

Jostunak

Emakumeentzat beste lanbide nabarmenetariko bat jostunarena izan zen, arropa erosi baino gehiago egin egiten zen garai batean, besteak beste, gaur egun baino denda gutxiago zeudelako. Josten ikastea emakume guztiek egin behar zuten zerbait zen. Batzuek, orduan etxeko arropa eta familiarena egin ahal izateko oinarrizkotzat jotzen zena ikasten zuten. Beste batzuek, berriz, etorkizunean horretaz bizitzeko aukera emango zien titulua atera arte ikasten zuten. Akademietara joaten ziren, eta gero, euren prestakuntza osatzeko, ikastun bezala, jostundegietara jotzen zuten lan bila.



Garai hartan, ez zeukaten gaur egun beste arropa; emakume askok kontatzen dute haurtzaroan astegunetarako jantzi bat zeukatela eta igandeetarako beste bat. Hortaz, jantzi bat egiten zenean, luzarorako izaten zen, batzuetan zenbait urtetarako. Arrigorriagan hainbat lekutan ikasi ahal zuten josten, eta emakume gazte batzuek lanbide hori aukeratzen zuten.

Gazte horietako batzuek Bilbon jarraitu zuten joskintzan ikasten eta gizonezkoen trajeak mozten ere ikasi zuten, batzuk erreferentziadun modistak bihurtuz, herriko jendearentzat ez ezik, kanpokoentzat ere bai.

"Jendea Arrigorriagara etortzen zen familia osoarentzako arropa eskatzera".

Emakume nagusi gehienak beti beltzez edo oso kolore ilunekin janzten ziren garai horretan, bazeuden andre batzuk oso berritzaileak zirenak eta oihal ausartak aukeratzen zituztenak. Oihalak eta jantzimota aukeratzera euren etxera joan behar zuten, nahiz eta batzuetan, jostunak fama apur bat zeukanean, bezeroek bere esku usten zituzten erabakiak. Mundu guztiak ezin zuen eduki norberari ondo geratzen zitzaiona zekien jostuna, nahiz eta oso garestia izan ez.

Andereñoak

Emakumeek umeen heziketan funtsezko papera izan dute eta daukate. Hezkuntza emakume batek izan zitekeen lan irteeretariko bat zen. Hortaz, familia askotan alaba batek edo hainbatek hori egiten zuten.

XIX. mendetik andereñoak izan ziren euren lanbideari esker eremu publikoan bidezko lekua eta aitortutakoa edukitzea lortu zuten emakume urrienetarikoak. Ideologia guztietako andereñoak egon ziren, Elizaren eraginpean eta garaiko botere politikoak guztiz baldintzatuta.

Lan honetan parte-hartu duten ia emakume gehienek oso ondo gogoratzen dituzte izandako andereñoak. Euren zeregina balioak trasmititzerakoan funtsezkoa zen. Hori dela eta, bizitzea tokatu zitzaien une politikoari zeharo lotuta zeuden. Horrela, gerrak deuseztatu egin zituen Errepublikako andereñoak, hezkuntzari aire berriak ematen saiatzeko erabilitakoak. Errepresioa erabiliz eta erbesteratuz zigortu zituzten eta heziketari bere izaera kontserbadorea bueltatzeaz eta Frankismoak exijitzen zuen moral zorrotza behatzeaz arduratzen ziren beste andereño batzuei eman zieten bidea.

Hori deal bide, eskola frankista bizi izan zuten elkarrizketatutako askoren oroitzapenak gazi-gezak dira: ikaskideen irudiak, jolasak eta haurtzaroaren lasaitasuna, irakaskuntza zorrotzarekin, euskararen errepresioarekin eta familien naturaltasunarekin kontrastatzen zuen zorroztasun moralarekin nahasten dira.

Dena den, udalerriko auzo guztietan egon ziren oso andereño maitatuak. Ollarganen Begoña Solá zena gogoratzen dute, ahalegin eta dedikazio bikainarekin oztopo guztiei aurre eginez eskolan lan handia egin zuena.

"umeekin zoragarria izan zen, berdin zitzaion hogei edo berrogei ume beharrezkoa bazen".

Elkarrizketatutako emakumeak:

- **Basilia Lozano Meneses, Arrigorriaga, 1957**
- **Nieves Alonso Atutxa, Arrigorriaga, 1966,**
- **Teresa Beraza Etxabe, hija de Concha Etxabe Gallaga, Arrigorriaga 1926**
- **Amaia Goikouria Galíndez, Arrigorriaga 1936, hija de Juana Galindez Liceranzu.**
- **Rosario Galíndez Iridin, Arrigorriaga, 1927**
- **Ángel Maqueda, marido de Margarita Gil Peña, Arrigorriaga, 1925**
- **Teochu y Visitación Liceranzu Ortega, hijas de Teodosia Ortega Badillo**

Euskera

Testuingurua

1950ean eta euskara eta euskal literatura bultzatzeko helburuarekin, Joseba Retolaza Lehendakariordeak "Sabindiar Batza" sortu zuen Donibane Lohitzunen. Hamarkada berean "hizketaldiak" atera ziren, eta EKA (Euskal Kulturaren Alde) sortu zen eta, besteak beste, Manu Sota, Jose Miguel Barandiaran, Manuel Irujo, Jose Antonio Aguirre, Telesforo Monzon eta Ibiñagabeitia bezalako ospetsuek hartu zuten parte, euskararen esparruan hain ospetsuak zirenak.

1942tik 1961era bitartean, oso aurrerapauso garrantzitsuak eman ziren. Adibidez, Elvira Zipitriak ikastola bat jarri zuen martxan klandestinitatean, Donostian helduentzako gau-eskolak hasi ziren, edo irratia eta antzerkia euskaraz bultzatu ziren. Bizkaian, 1949an, Xabier Peña klaseak ematen hasi zen Bilbon eta aurrerago "Euskal irakasbide laburra" eta "Iniciación al estudio del euskera" argitaratu zituen.

Aldi berean, hizkuntza irakasteko eta bultzatzeko topaketa garrantzitsuak eta jendetsuak hasi ziren ospatzen, bertsolari txapelketak eta prentsa euskaraz sortuz. Euskaraz irakurtzen eta idazten hasteko komunikabideak "eskolak" izan ziren, eta Rikardo Arregi, Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Amaia Lasa, Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Andu Lertxundi edo Bernardo Atxaga bezalako idazleen agerpena erraztu zuten.

Eta ikastolen fenomenoa Donostiatik beste hiriburu eta herri batzuetara zabaltzen zen bitartean, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Antton Valverde, Ez dok Amairu, Oskarbi eta Oskorri taldeek euren musikarekin eta ahotsekin euskara zabaltzen laguntzen zuten.

Aldi berean, umeak euskaraz idazten eta irakurtzen ohitzeko, 1959an Nafarroan, "Umeen deia" sortu zen. "Zeruko Argia"k, 1960tik 1964ra bitartean Gipuzkoan, "Pin-Pin" komikia argitaratu zuen, eta Jose Antonio Retolazak, 1966tik 1968ra bitartean

kopiagailuan eta 1977tik gaur arte inprentan eginiko "Kili-Kili" sortu zuen Bizkaian.

Kili-Kili Bizkaitik Euskal Herri osoan zehar jendarteratzen zen, eta urteroko jaialdian bederatzi mila ume elkartzen ziren.

Horrela, gau-eskolak jaio ziren, bertan oso goiz ikasketak utzi zituzten gazteek gaztelania eta matematika apur bat gehiago ikasteko aukera izan zezaten. Izen berbera hartuz eta Euskaltzaindiaren bermearekin, 1966an, hainbat herritan helduen alfabetatzeari ekin zitzaion. Hasiera batean, idazmenean laguntzeko testu batzuk erabili ziren, lehenengo gramatikak argitaratu ziren arte.

1969an, Euskal geografia osoan zehar Euskaltzaindiaren laguntzarekin gau-eskola ezarri zen, jendeak "euskaltegia" deitzen zuena. 1977an, alfabetatze eskola guztiak koordinatzeko asmoz, AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) koordinakundea sortu zen. 1981ean Eusko Jaurlaritzak HABE (Helduen Alfabetatze-Berreuskalduntze Erakundea) Institutua sortu zuen.

Euskera Arrigorriagan

Lan honetan parte hartu duten emakume askotxok euskarak jasotako jazarpena lehenengo pertsonan bizi izan dute, batez ere gerraosteko diktadura garaian.

Euren gomuta asko eskola garikoak dira, ikasle euskaldunak gaztelaniaz apenas jakin gabe erdaraz hitz egitera behartuta zeudenean. Euskararen erabilera zapaldu izanak, kasu batzuetan, familiartean berba egitera murriztu zuen. Beste askotan, emakume askorentzat, haurtzaroko hizkuntzaren betiko galera ekarri zuen.

> *"Kalean ezin zen euskaraz berba egin, hortaz, etxe barrurako mantendu zen. Guardia zibila erronda egiten pasatzen zenean, kontuz…".*

> *"Garai hartan, norbaitek euskaraz hitz egiten entzunez gero, belarrondokoa bat ematen zizuten, kontu horrekin aguazilarengana jotzen zuten salatien beldurrez, halako asko zeuden eta. Aguazilei eta udaleko jendeari beldur handia genien. Izan ere, halako batean norbaitek entzun ahal zizun, eta beharbada izuna edo zerbait txarrago jartzen zizuten. Baziren kuadrillak Falangekoak zirenak, berdurgarria zen maisu bat, … Abertzaleak izateagatik oso txarto pasatu zuten familiak egon dira".*

Elkarrizketatutako batzuek, handik urte batzuetara ekin zioten euskarari berriro ere, 70eko hamarkadaren erdi inguruan, euskara-eskolak antolatzen hasi zirenean, batzuk Edurne Garitazelaiarekin, beste batzuk gau-eskolan:

> *"(…) Edurneri laguntzen animatu zen mutil Gipukoar batekin. Giroa oso jatorra zen, guziok elkar ezagutzen genuen eta. Helduentzako klaseak ziren, baina nik seme-alabak apuntatu nituen ikas zezaten".*

Emakumeek gaiari buruz anekdota ugari gogoratzen dute:

> *"Txikia nintzela, gau batean etxera heltzean "buenas noches" esatea bururatu zitzaidan. Ia gaztelaniarik ez nekienez, oso pozik nengoen, esamoldea egun horretan ikasi nuen eta. Amak besotik heldu, etxetik atera eta euskaraz zera esan zidan: "Zer esan duzu atean? Utzi hori kanpoan. Eta isildu. Gabon. Demontre…"*

Garai hartan ezin zen euskararik hitz egin ez ikasi, baina askori "arantza hori sartuta" geratu zitzaien, eta horregatik gaur egun ilobekin euskaraz komunikatu ahal izateko euskaltegira joaten dira.

> *"Ama La Picotatik etortzen zen esne-saltzailearekin soilik aritzen zen eskaraz, gurekin fitsik*



ere ez. Orain ikasi egin behar dugu, gure adinarekin... Baliteke sekula ere ez lortzea gure ilobekin euskaraz hitz egitea, baina saiatu egiten gara".

Kontua da 60ko hamarkadaren hasieran Arrigorriagako kaleetan ez zela euskaraz ia berba bat ere egiten.

"Neska-mutilek galdetzen ziguten: "zuk euskaraz dena dakizu?". Eta jakina, baietz erantzuten genien, behar genuen beste genekielako; Arrigorriagan ez zen euskaraz hitz egiten eta familiartean baino ez genuen erabiltzen. Egia esan, esku bateko atzamarrekin konta ditzaket familia euskaldunak".

"Mezak euskaraz ere ematen ziren, eta jende ugari zegoen, askorik ulertu ez arren, euskaraz zen mezatara joatea nahiago zuena, euskaraz kantatzen baitzen, eta jende askok nahiago zuen".

1968. urte inguruan Jose Antonio Retolazak sortutako "Kili-Kili" aldizkaria Arrigorriagara heldu eta ezagutu zuten. Gazte talde bat harremanetan jarri zen seme-alabek euskara maila hobetu eta manten zezaten interesa zuten familiekin, eta aldizkariak banatzen hasi ziren. Edukia era askotakoa zen: Euskal Herriko historia, gramatika-ariketak eta neska-mutikoek bete eta bidali behar zituzten denbora-pasak. Izan ere, sarritan lehiaketak antolatu eta sariak ematen zizkieten. Haurrentzako argitalpena zenez, edukiak oso zainduta zeuden. Doanekoa zen, eta elkarrizketatuetariko batek tamaina horretako proiektu bat aurrera ateratzeko herri bakoitzean parte-hartzen zuten gazteek egindako lana azpimarratzen du.

Horrela, Arrigorriagan eta beste herri batzuetan hizkuntzaren berreskurapena bultzatzeko lan handia egiten hasi zen lagun sarea sortu zen. Aldizkariez gain, aisialdi taldeak antolatzen hasi ziren, beste leku batzuk ezagutzeko txangoak, umeentzako ekintzak, eta abar, egiten zituzten.

Horrela, euskaraz zekiten neska-mutikoek, gaztegaztetatik (11 edo 12 urterekin) hasi ziren ume txikiagoei euskara-eskolak ematen.

"Kili-Kilik garrantzi handia izan zuen eta, ume mokoak izan arren, kontzientzia piztea eragin zuen; jende askok euskara berreskuratzeko gogoa sentitzea ekarri zuen. Ume haietariko batzuek geroago, 1975ean, Arrigorriagako Joseba Andoni Uriarte ikastola bultzatu zuten: besteak beste, Mari Carmen Ibarrondok, Iñaki Espartzak, Bego Ugarrizak, Jesus Maria Bernaolak, José Marcok, Mª Ángeles Beobidek, nik neuk eta beste hainbatek. Prozesu horretan apaizek ere zeregin garrantzitsua izan zuten".

Lehenengo andereñoak: Edurne Garitazelaia eta Alazne Etxebarria

Edurne, 1926an Zaldibarren jaio zen, eta 1963an heldu zen Arrigorriagara familiarekin. Ezkondu eta gero, lan egiteari utzi zion, eta bere senarrak ere fabrikako lana utzi zuen bere negozioa ipintzeko. Arrigorriagan eskopetak saltzeko eta konpontzeko tailer bat zabaldu zuen, eta gainera, salabardoak eta arrantzarako beste tresna batzuk ere egiten zituzten. Horrexegatik deitzen zioten "El Armero".

Une horretan ez zegoen giro euskaldunik, eta ez zitzaion inori kalean euskaraz hitz egiten entzuten. Baserrian bizi ziren familia batzuek hobeto mantendu zuten, baina gehienek ez zuten egunez egunean erabiltzen.

Edurnek, bere aldetik, senarraren tailerrean lan egiten zuen, etxeaz eta seme-alaben zaintzaz arduratzen zen, eta gainera, arratsalde batzuetan, Papelerako eskolan, helduen talde bati euskara-eskolak ematen hasi zitzaion. Esaldi errazak zituen liburuxka bat zeukan ikasleek apurka-apurka ikasten joan zitezen. Kantak ere irakasten zizkien. Lehenengo ikasle talde horrek Edurneren eta eskolen inguruan gomuta asko eta oso onak ditu:



"Ez zeukan inolako titulurik, baina euskara maite zuen etxeko andre ausarta zen. "EGA soinean zeramala" jaio zen. Nik bere eskuzabaltasuna azpimarratuko nuke, bere interes bakarra guk euskara ikastea zen. Oso barregarria zen eta klaseak oso atseginak ziren".

Hutsetik hasten zirenez, hasieran erraza zen liburu bat erabili zuten, baina bigarren urtean Xabier Peñaren gramatikarekin hasi ziren.

"Askoz ere zailagoa zen. Baina Edurnek kanta asko ere irakasten zizkigun, beraz, oso atsegina zen".



"Bere klaseak euskara ezagutzen hasteko izan ziren, guk hizkuntza eta kultura ikasteko interesa izateko modua zen".

"Euskal hizkuntzaren defendatzaile amorratua zen, adibide asko jartzen zituen beti eta guztia gogoratzen genuen horrela …".

"Edurne bakarra zen, oso pertsona ona, oso langile fina, eta bere familia eta lagunak oso maite zituena. Sekula ez nion entzun "ezin dut" esaten, beti zegoen prest eskatzen zionari laguntzeko".

Vaticanoko II. Kontzilioak mezak eta bestelako elizospakizunak euskaraz ere izatea onartu zuenean, Edurnek katekesia euskaraz ematea bultzatu zuen, gaztelaniaz soilik izan ez zitezen, 70eko hamarkadara arte gertatu izan zen bezala.

Seme-alabei ere euskarari zion maitasuna eta hizkuntza mantentzearen garrantzia transmititu zien; hortaz, herriko gazteri euskaldun urriekin batera, eurak ere eskolak ematen hasi ziren, lehenengo neska-mutiko txikiei, eta gero gazteei eta baita helduei ere.

"Etxeko andreak ziren eta euskara ikasi nahi zuten. Beraz, klaseekin hasi ginen. Askorik ez zuten ikasi, baina klasera pozarren etortzen ziren. Egia esan, garrantzitsuena ez zen ikasi zutena, horri jartzen zioten gogoa eta jarrera baizik. Eurek hazia jarri zuten. Izan ere, gero seme-alabei gure hizkuntza ikastearen garrantzia transmititu zieten".

Garai hartan "Kili-Kili"n pate-hatzen zutenen artean Arantza Uriondo, Txaro Uriondo, Arantza Eiakuria, Mª Ángeles Beobide eta beste batzuk zeuden.

1975ean, Haur eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Zentroetako programetan jaioterriko hizkuntzak gehitzea arautu zen, eta hori euskara klandestinitatetik ateratzeko aukera ona zen maisu-maistra askorentzat.

Arrigorriagan, Edurne Garitazelaiaren alaba Alazne Etxebarria izan zen Bizkaiko eskola publiko batean euskara-eskolak eman zituen lehenengo andereñoa.

"Behitzat horrela kontatu izan du beti, oso harro zegoen José Luis Martínez "Xirimiri" zuzendariak".



"Gizon horri ez zaio sekula aintzatetsi garai hartan euskara-eskolak emateko egin zuen esfortzua".

Alazne Etxebarriak eskolan zeuden zortzi mailei eman zizkien euskara-eskolak, maila bakoitzari ordubete astean, hilabete batzuetan, martxotik ikasturte amaierara arte.

Elkarrizketatutako emakumeak:

- **Alazne Etxebarria Garitazelaia, Zaldibar, 1956**
- **Txaro Uriondo Etxebarria, Arrankudiaga, 1957**
- **Lander Etxebarria Garitazelaia, Arrigorriaga 1966**
- **Karmele Albizua Egiluz, Arrigorriaga, 1931**
- **Juan José Agirre Jauregi, Arrigorriaga, 1953**

Partehartze politiko eta soziala

Emakumeek bizimodu sozial eta politikoan parte hartzeko historikoki eduki dituzten mugak gorabehera, haietako dezente, era batean edo bestean, udalerriko bizitza publikoan oso presente egon dira.

Lan honetan zehar, fabriketan, dendetan edo baserrietako produktuak saltzen jardun duten arren, etxeko zereginez eta familiaren zaintzaz arduratzen ziren emakumeen testigantzak behin eta berriro entzun ditugu. Familiaren ekonomiari eusteko edo eusten laguntzeko egoerak lan merkatura irtenarazten zienean ere, emakumeak etxeko lanei lotuta egon dira.

Elkarrizketatutako emakume gehienek adierazten dute eurentzat ez zegoela bizitza sozialik, denbora ezagatik ezeze, espazio publikoak eurentzako betoa zeukalako ere. Hala ere, askok, harremanak izateko, jakin-nahiak garatzeko eta auto-errealizaziorako, "etxetik ateratzeko" modua aurkitu zuten.

Hasiera baten, Elizak kontu honetan zerikusi handia izan zuen, Jaunartzea egiteko adina zeukaten ume txikiak zituzten emakumeak, elizara hurbildu eta "erreferentzia taldeak" aurkitzen zituztelako. Helduen taldeak ziren, hasiera batean erlijio gaiei buruz hitz egiten zutenak, ondoren beste era bateko gai orokorragoei ekiteko. Emakume asko pasatu ziren talde horietatik noizbait, etxetik kanpo gauzak egitea ondo ikusita egon ez arren, elizak antolatutako ekintzak izateak nolabait baimena ematen zielako.

"Eguneratze kultural baten modukoa zen, hasieran Biblia irakurtzen eta erlijio gaiei buruz hitz egiten hasten ginelako, baina gero edozeri buruz hitz egiten genuen. Emakume askorentzat etxetik atera ahal izatea esan nahi zuen, bere taldeko edo beste batekoekin harremanak izatea…, Herriko bizitza sozial edo kulturalari bultzada emateaz gain, etxetik irten zitezen eta ekintzak egin zitzaten emakumeei emandako bultzada lan garrantzitsua izan zen. Noizbait

200 lagun baino gehiago ziren bertaratutakoak, gehienak emakumeak".

"Elizan herriak zeuzkan beharrekin konprometitzeko beharra transmititzen zen".

Ollargan auzoan, Eliza eta zehazki Felix bikario jauna, gaur egungo auzoaren sorkuntzan funtsezkoak izan ziren. Sorkuntza horretan emakume askok gogotsu hartu zuten parte, baita erabakiak hartzeko orduan ere.

Arrigorriagako elkartze-mugimenduaren historia herriarekin konprometitutako emakumez josita dago. MADALEN, ANDRE BERRI edo SIAL emakume elkarteek eurek, emakume horietako askori ikasketak berrartzeko eta oso ekintza ezberdinak egiteko aukera eman zien.

Baina gaur egun ere emakumeak elkarte mistoen puzzlearen pieza garrantzitsuak dira, eta udalerriko gizarte, kultura edo kirol ekintzetan, parte hartzen dute. Ollarganeko emakume futbol taldea, emakumeek kirol munduan euren txokotxoa izateko borrokatu dutenaren adibide bat da.

Emakumezko alkate batek, ordezkari sindikal batek, Koruko zuzendari batek, hainbat elkartetako lehendakariek (guztiak emakumeak)..., Arrigorriagako emakumeek aurrea hartzeko eta euren inguruarekin konpromisoa hartzeko orduan interes eta gaitasun bikaina erakutsi dute.

Arlo politikoa

Arrigorriagako lehenengo emakumezko alkatea: Mª José Albizua

Mª José Albizua Arrigorriagan jaio zen 1959an. Politikan "oso modu naturalean" hasi zen, bere aita horretan aritzen baitzen, eta gainera Mª José bera borondatezko lan eremuan mugitzen zen. Bere alderdiko (EAJ-PNV) gizarte arloa ere eraman zuen, 1983an zinegotzia izan zen, eta apur bat geroago alkatea.



Garai hartan emakumeek orokorrean, alderdi politikoetan indar gutxi zeukaten; euren lekua gizarte eremua zela uste zuten eta horretarako gaitasuna ematen zitzaien, "naturala", hain zuzen ere

"Lehen askoz gehiago. Izan ere, lehenengo-lehenengo eremu ekonomikoan, herri-lanetan... pentsatzen zen, eta gero, azkenean emakumea nolabait argazkirako eta gizarte arlorako. Horrela izan behar zuela zirudien".

Bere esperientzia politikoan gogoratzen du emakume zinegotzi bi baino ez egotea gogorra zela, emakumeen eta gizonen artean alde handiak zeudela, baina gehien Udalak nolakoa izan behar zuenaren ikuspegian nabaritzen zen, gizonek,

"herri-lanei eta diruari ematen ziotelako lehentasuna. Egia da egoera ere oso zorrotza zela".

Berea gizarte arloa zen eta, ezer ez zegoenez, martxan jarri behar izan zuen. Lan handia eta lankideekin eztabaida ugari ekarri zizkion, baliabide horiek beste bide batzuetatik ematen zirela ulertzen baitzuten, adibidez, Caritas delakoaren bidez:

"Osasun arloa normalizatuz, osasun zentroa pediatra batekin zabalduz, (...) eta gizarte langile bat kontratatuz hasi nintzen".

"Ez zirudien Udalak horrekin zerikusi handirik zeukanik. Emakumezko udal idazkari teknikaria geneukanez zortea izan genuen, oso irizpide zabaleko emakumea eta oso konprometitua" .

Mª José Albizua 1983an sartu zen Udalean, uholdeak izan ziren urte berean. Bere senarra, hau ere zinegotzi, alkatea ordezkatzen ari zen, eta herria normaltasunera bueltatzea tokatu zitzaien. Zerrendako lehenengoa izatea proposatu ziotenean, berak alkate ikusten zuen bere burua honako arrazoia hauengatik:

"Amets bat neukalako, beste Arrigorriaga ezberdin baten utopia, non ongizate eta garapen maila altuagoak lor zitzakeen herria, eta udala izan zitekeenaren bestelako ikuspuntua ematen ikusten nuelako neure burua. Ahalegina egin nuen herria bera orokorrean izan zedin proiektua aurrera eramango zuena".

Honakoa ere gogoratzen du: gizona izan balitz bere taldearen aldetik Udalean zeukan laguntza bestelakoa izango zela. Behin hartutako erabakiak ondo ateratzen zirela egiaztatzen zenean, zoriondu egiten zuten eta guztiz alde agertzen ziren, baina hori baino lehen bere lankideek zalantza ugari planteatzen zizkioten, eta gizon batek jarrera bera hartuko balu baino zalantzatiago agertzen ziren. Alkate karguan urte nahiko gogorrak tokatu zitzaizkion, baina, orokorrean, ez dauka garai horren gomuta txarrik.

"Joko politikoa oso maskulinoa da"; "zeugan konfiantza jartzen zuten zerbait demostratu egiten zenuenean, eta gizonekin ez zen hala".

Bere iritziz, gaur egun emakumeak gizonek lan egiteko modua imitatzen ari dira, lanaldia luzatuz, familia bizimodua bigarren mailan utziz, eta abar, beste eredu gizatiar bat defendatu beharrean.

Mª José medikua da, eta alkate izendatu zutenean mediku lanari utzi zion. Legealdia amaitu ostean, medikuntzara bueltatzeko unea zela erabaki zuen. Osakidetzako Barneko Eskualdeko Kudeatzailea izatea proposatu zioten. 18 urte eman zituen karguan eta "liluragarria" zela uste zuen. Gero 6 urte eman zituen Santa Marina Ospitaleko Kudeatzaile moduan, eta gaur egun medikuntzara bueltatu da,

"...unibertsitario bezala, MIR bezala itzuli naiz, medikuntza ikasteko arrazoia ere berreskuratuz"..

Uste du emakumeak Udalaren barruan sartzeak herriko gainontzeko emakumeek ere iniziatiba har zezaten lagundu duela. Palmira Palacios, MADALEN emakume elkarteko lehenengo lehendakaria hartzen du adibidetzat,

"(...) emakumearen protagonismo ezberdin eta gogorra abian jarri zuena. Emakumeek indarra zeukatela jakinarazi, lisatze lanetan aritzeko ez ezik, egoera publikoak planteatzeko, antolatzeko eta abarrerako ere bai".

Beste emakume batzuk eremu politikoan

Udalerriko politikan presentzia garrantzitsua izan zuten emakumeen beste hainbat adibide daude. Sindikalismoa guztiz gizonezkoen arloa zen garaian, ordezkari sindikalak izan diren emakumeak aurkituko ditugu; inolako aurre prestakuntzarik gabe, pertsona langileen eskubideak defendatzea bezalako zeregin zailak egin zituzten emakumeak. Papelerako Enpresa-batzordekoa izatea, ziurrenik emakume bat bera



ere ongi etorria ez zen gizonezkoen mundu batean sartzea zen:

"Hasieran ez nuen nahi, sindikalismoari buru ezer ez nekielako, baina oso ondo etorri zitzaizkidan prestakuntza ikastaro nahikotxo egin nituen".

Beste emakume batzuei Frankismoa bizitzea tokatu zitzaien. Horrek, kasu batzuetan, kartzelan amaitzeko moduko militantzia politikora eraman zituen. Horrela, euskararen, kulturaren, herriaren eta erregimenak kendutako eskubide zibil eta politikoen aldeko borrokan nahasi ziren emakumeek errepresio izugarriarekin egin zuten topo aurrez aurre.

"Ez zegoen inolako arrazoirik ni atxilotzeko, baina asko ibiltzen nintzen Argalarekin, eta nire etxean propaganda paketeak neuzkan, besterik ez. Garai hartan propaganda orri batzuk etxean edukitzea oso arriskutsua zen, edozein gauzagatik eramaten zintuzten eta".

Inposatuta zetorkien rol femeninoa betetzeari ezezko borobila ematen zioten; mendia, kirola egitea, eta abar atsegin zuten, … eta bestalde, frankismoari erresistentzia zereginetan eta arrazoi horrengatik antolatzen ziren Aberri Eguna bezalako ekintzetan parte hartzea beharrezkotzat jotzen zuten emakumeak ziren.

"Txindoki mendi taldearekin ahal genuena egiten genuen, Gernikara edo behar zen lekura joaten ginen oinez. Aberri Eguna Bergaran izan zenean, mendian egon ginen jendeari pasatzen laguntzen, nondik joan zitezkeen erakusteko".



Lanaren hasieran aipatu dugun bezala, parte-hartze politikoaren beste adibide bat 60ko hamarkadan Ollargan auzoaren sorkuntza eta transformazioaren historian aurkitu genuen. Emakume asko izan ziren prozesu horretan parte hartu zutenak, Bilbon lan egiteko hainbat lekutatik etorritako familia asko tartean sartu zituena.

"Nik hasieratik hartu nuen parte. Proiektuaren buruan hainbat lagun geunden. Hasteko 1.000 pezeta bildu genituen, arkitekto bat kontratatu genuen eta… gorabeherak izan arren, aurrera jarraitu genuen".

Elkarteak

Udalerrian emakume elkarteen presentzia oso garrantzitsua izan dela jo daiteke. Herrigunean emakume talde antolatua dago, MADALEN elkartea, eta Abusun bi, SIAL eta ANDRE BERRI. Horiez gain, izaera mistoa izan arren emakumeen parte-hartze handia duten beste hainbat elkarte daude.

MADALEN emakumeen elkarte kulturala

MADALEN Elkartea 1997. urtean sortu zen BBKko emakumearen promoziorako ikastaroetan partaide izan zen emakume talde batetik. Programa hori amaituta, emakume haiek autoantolatzen animatu ziren, eta barne-funtzionamenduaren berri izateko antzeko beste elkarte batzuetara jo zuten:

"Arrigorriagako emakumeak apur bat bereziak gara, oso kolaboratzaileak eta oso langile finak gara, baina gu gidatzea ez da hain erraza. Guztiok gara liderrak, izaera daukagu".



Sortzailetariko bat Palmira Palacios Bustamante (Palmi) izan zen, emakume guztientzat erreferente izan zena: oso emakume gogotsua, urte askoan katekista izan zenez, herri osoak ezagutzen zuena. MADALENen lau bat urte eman zituen lehendakari.

"Oso pertsona isila zen, ideiak oso argi zeuzkan, bazekien zer nahi zuen". Gainera "oso emakume zorrotza" zen, eta horrek elkartearen kudeaketan itzel lagundu die.

MADALENek Arrigorriagako emakume askori ahalbidetu die bizitza soziala izatea eta etxeko lanaren eta familiaren zaintzari alternatiba bilatzea.

Emakumeen arteko elkartasuna oso garrantzitsua dela uste dute. Euren artean babestuta, lagunduta eta oso zainduta sentitzen dira. Gehien parte





Maddalen: mujeres activas

La asociación socio-cultural Maddalen cumple en 1999 su tercer año de andadura oficial, aunque a sus espaldas arrastra más de una década de actividades. «*Al principio, el programa iba encaminado a la obtención del graduado y estudios medios. Con el tiempo, las actividades han ido extendiéndose a otras materias como las manualidades*», explica su presidenta, Palmira Palacios.

Ahora, este colectivo congrega a más de 250 mujeres de la localidad que asisten a los cursos de baile de salón, artes plásticas, gimnasia, teatro y aerobic. Tampoco faltan las excursiones culturales o a empresas alimenticias, ni las labores de solidaridad.

hartzen zuten bazkideen artean laguntza sarea sortzea lortu dute, eta horrek elkartearen parte sentiarazten die.

Ekintza zehatz kopuru ederra antolatzeaz gain, herrian egiten diren Herriko jaiak, Martxoaren 8a, San Juan eguna, kirol jardunaldiak... bezalako hainbat gauzatan ere parte hartzen dute. Inplikatutako emakumeak adin ezberdinetakoak dira: 14 urtetik hasi eta 70 urte baino gehiagokoak.

Herrian oso ezaguna den elkartea da, eta emakumeak bertara naturaltasunez hurbiltzen dira.

Guztira 500 bat bazkidek osatzen dute, eta horietatik 300 batek maiztasunez hartzen dute parte.

Gainera, beraien ekintzetan gizonen parte-hartzea onartzen aitzindariak izan dira.

"Gizonek lagundu egiten digute, gurekin egoten ikasi dute...".



MADALEN elkarteak, Aldundiak sustatutako Bizkaiko emakume elkarteen Foroan hartzen du parte, eta sari garrantzitsuak jaso ditu:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasuna, 2005.
- Arrigorriagako Udala, Arri Sariak, Arrigorriaga Gaur, 2006.
- DEIA Hemendik Sariak, 2011.

ANDRE BERRI emakume elkartea

ANDRE BERRI Arrigorriagako emakume elkarteetako bat da, emakumearen promozio proiektu batetik sortu zena. 2000. urtetik, gaur egun dauzkaten Bilboko Udalaren lokaletan aritzen dira. Lehenago, urte askoan elizaren lokalak erabili zituzten.



Hasiera batean, elkarte honen helburua emakumeak psikologiari buruzko hitzaldietara joatea, joskintza, gimnasia, eta horiek bezalako ekintzak egitea lortzea zen. Baina gimnasia egitearenak nahikotxo tardatu zuen finkatzen *"emakumeoi ez digutelako irakatsi gimnasia egitearen garrantzia".*

Ahoz aho eta kartelen bidez beste emakume batzuen arreta deitu zuen emakume talde txiki batek hasitako lehenengo bilera haietatik gero eta talde egonkorragoa atera zen, hasieran zer aurkituko zuten oso ondo ez zekiena. Hala ere, bazeukaten zerbait elkartu egiten zituena: inguru monotono batetik irteteko, jakiteko eta emakume bezala eta pertsona bezala hazteko gogoa. Guztiek, baita euren bizimoduarekin pozik zeudenek ere, elkarte horrek "askapena" ekarri diela ziurtatzen dute.

Kolektibo bezala lortutako lorpenak eztabaidaezinak dira. Elkarteaz gain, geroago lehendabiziko Denbora Bankua jarri zuten abian, Bartzelonako emakume batzuen hartu-emanaren emaitza izan zena. Elkartearen aurkezpenean azaltzen duten moduan, eta webgunean irakur daitekeenez,

> *"elkartean zeregin azpimarragarri bi daude, humanoa eta kulturala. Lehenengoak zerikusia dauka emakumeok elkarrekin harremanetan egon ahal izatearekin, eta gauzak beste modu batean ikusi ahal izateko eta beste andre batzuekin harremanetan egotea bizimodu ona izateko ezinbestekoa dela konturatzeko. Arlo kulturalean, prozesu neketsu eta geldoa izan da, baina oso aberasgarria. Gehien bat ikasketak burutzeko aukerarik izan ez zuten emakumeak dira; batzuk ia irakurtzen eta idazten ez jakitetik helduentzako unibertsitatean goi mailako ikasketak egitera pasatu dira. Beste batzuk arte eszenikoetan, edo dantzan, edo ehoziriak egiteko ohitura berreskuratzen, eta abarretan arrakasta izatea lortu dute. Pintzelaren artea oihal gainean hain ederto erabiltzen dute, non Arte Ede-*

rretako edozein eskolak merezitako edertasunak irudikatzea lortzen duten. Edo agian tuna hori, eta bere bitartez, sekula izan ez ziren "estudiante tunante" garaia gogoratzea lortu duten emakumeak dira".

Gaur egun, beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta bidaiatzen diren emakumeen arteko adiskidetasun harremanak gogortzeko, beste elkarte batzuekin hartu-emaneko bidaiak egiten dituzte.

"Etxetik irtetearena jada lortu egin dugu".

Orain genero perspektiba sartu nahi dute eta emakumeek boterea lor dezaten lan egin, erronka izugarritzat daukatena. Berdintasun arloa lantzeko interesatuta dauden emakume talde batekin, feminismo eskola bat egiten ari dira oso eskala txikian.

SIAL emakumeen elkarte kulturala

1997an, gimnasia egiteko elkartzen zen emakume talde batetik sortu zen kultura-elkarte bezala. Apurka-apurka ekintza gehiago egiten joan ziren, eta elkarte bihurtzea erabaki zuten. Euren jardueren artean honako hauek daude: gimnasia, dantza, yoga, patchwork ikastaroak, ehoziriak, eta abar, eta gainera auzoko ekintza askotan gogotsu hartzen dute parte.

"(...) elkarlanean aritzeko eskatzen diguten guztietan egoten saiatzen gara, dauden ekimen guztietan elkarlanean aritzea eta parte hartzea garrantzitsua dela uste dugulako".

SIALek, beste emakume elkarte batzuen moduan, 80 bat bazkide elkartzen ditu, eta horietatik 50 inguruk maiztasun handiagoarekin hartzen dute parte. Astero egiten dituzten ekintzez gain, urtero martxoaren 8ko EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA, eta azaroaren 25eko EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA kanpaina instituzionaletan parte hartzen dute, eta baita genero gaien inguruan udalerrian egiten diren beste ekintza batzuetan ere. Horiez gain, txangoak, gertakari kulturaletara bisitaldiak eta abar programatzen dituzte.

SIALeko zuzendaritza-batzordea osatzen dutenentzat, bilerak jartzen, ekintzak antolatzen, eta abarretan egiten duten lanak baliagarri sentiarazten ditu:

"Gure belaunaldiko emakumeak, seme-alabak eskolara joaten direnean, zer egin jakin barik geratzen gara. Asko etxe barruan geratzen gara, eta pertsona bezala hazi beharrean garbitzeko dagoen zerbaiten bila ibiltzen gara. Elkarteak, etxetik irtenarazi gaitu, guretzako denbora bilatzen irakatsi digu, familia zaintzen ibili izan garenez, lehen egin ezin izan dugun guztia egiteko. Orain gure sasoia da, prestakuntza izateko, ondo pasatzeko, beharrezko ikusten duguna aldarrikatzeko, ikasteko eta abarrerako ordua da".

ADISKIDEAK kirol CLUBa

Kirola da, hain zuzen, futbola, Arrigorriagak ezohiko protagonista duen beste esparru bat.

Maruja Torres Orzak, 1978an, Ollarganeko ADISKIDEAK futbol taldea sortu zuen, auzoko jaietan emakume ezkondu eta ezkongabeen artean futbol partida bat jokatu zutenean, gaur egungoari hasiera emango ziona. Gaur ADISKIDEAK hiru talde dauzka: Erregionala,



Kadetea eta Kimuak, eta baita bazkide kopuru ederrra ere, laguntza gehien ematen dutenak dira eta.

Lehendakariak argitu nahi duenez, hasierak oztopolasterketa luze baten modukoak izan ziren. Gizartea ez dago berdintasunerako prestatuta, eta oraindik egiteko asko geratzen da, bere aburuz.

"Futbola gizonentzat dago eginda, ez emakumeentzat, eta hor erdian sartzea ez zen batere erraza izan. Hasieran zelaia lortzea ere ezinezkoa zen. Euren pentsamoldea ez zen, hain zuzen, emakumeak eta gizonak berdinak izatearen aldekoa. Geure buruan ere ez zegoen denok berdinak izatea..., baina bai eskubide berberak izatea. Hau lortzeko ia 25 urte igaro behar izan dute".

"Aitaitei, neskatilei jokatzen uztea sano kostatzen zaie, batzuetan beste gauza batzuetan apuntatzen saiatzen dira futbolean arretarik jarri ez dezaten. Alabek jokatzen dutenean, jokatzen duen seme bat badaukate eta partida biak aldi berean badira, semea ikustera joaten dira, ez alaba. Nik hori neskatila askorekin ikusi dut, ez diete laguntzen".

Baina oztopoekin batera esperientzia ugari ere egon dira:

"Entrenamenduak, nesken garaipenak, baina gehien bat euren arteko harremanak, laguntasuna, jokalariak kirolean hazten ikustea...".



ZUBIETXE elkartea

Ollarganen 80ko hamarkadan sortu zen Zubietxe elkartea dago, auzoko jende gazte askorengan eragina zeukan drogen arazoari aurre egiten laguntzeko elkartea. Hasieran, kartzelatik irteten ziren gazteentzako harrera-pisua izan zen:

"Berriro hasteko balio ziezaien zubi-etxebizitza bat, hortik dator gure elkartearen ziena: Zubietxe".

Elkartea apurka-apurka bere zerbitzu eskaintza handituz joan zen, azkenik, Abenduaren 22a, egun lokalak dituen kalera aldatu zen arte.



Gaur den egunean, Zubietxek etorkinei estaldura ematen die hitzaren osotasunean: baliabide, prestakuntza, laguntza, lagun-talde, eta abarren bidez. Eta horretan 25 hezitzaile ari dira.

Elkarte horretan emakume askok egiten zuten lan, eta horietako bat, 70ko hamarkadan, Ollargan auzoa eraikitzen ibilia zen: Paula Muro, Ollarganeko bikarioak 1970ean, Compañia de Maria kongregazioari egindako eskerari esker beste lau kiderekin batera etorritako moja. Ondoren, auzotik kanpo urte asko eman zituen arren, denborarekin Ollarganera bueltatu zen lanera, eta horretan darrai Zubietxe Elkartetik.

Arrigorriagako jubilatuen eta pentsiodunen etxea

Emakumeak buru diren elkarte mistoaren adibide ona da hau. Horietako bik, gaur egun, lehendakari eta lehendakariorde karguak betetzen dituzte.

Argi daukate euren karguetan ez daudela kasualitatez, dauden lekuraino heltzeko lanak egon direla.

Bien ustez jabekuntza prozesu luzea bizi izan dute. Horri esker etxea eta familiaren zaintzan baino ez aritzetik, lehenengo MADALEN elkarteko ikastaro eta ekintzetan parte hartzera, gero prestakuntza izateko EPAn eta Antzerki taldean parte hartzera pasatu ziren, Erretiratuen Elkartea gobernatzen amaitzeko.

"Uste nuen ez nintzela gai izango ezer egiteko, utzi egingo niola, eta abar, baina nire senarrak eta alaba nagusiak sano animatu ninduten".

"MADALENen hasi nintzen ikastaro bat egiten, eskolara ere joaten nintzen graduatua ateratzeko, eta Hamaika antzerki taldean amaitu nuen".



Arlo artistikoa: Antzerkia eta Musika

Azkenik, espazio publikoan emakumeen parte-hartzeari buruzko atal honen barruan euren ekarpenei, ekimen artistiko azpimarragarri biren bidez helduko diegu: musika korala eta antzerkia.

ALBARAKA abesbatza

Arrigorriagak Enriqueta Hortalá gogoratzen du, bere zaletasunen artean musika nabarmentzen zen emakume polifazetikoa. Piano tituluarekin Arrigorriagako zenbait eskola eta ikastolatan hasi zen eskolak ematen.



1984an, 30 bat emakumek osaturik egotera heldu zen ALBARAKA abesbatza sortu zuen. 1990ean federatu egin ziren, eta hamaika lekutan eman zituzten kontzertuak, atzerrian zehar egindako bira batzuk barne.

Enriquetak, elizako organoa jotzeaz, eta bataio, ezkontza eta sarritan bestelako ospakizun batzuetan bakarlari parte hartzeaz gain, korurako abestiak konposatzen eta moldatzen zituen.

Gainera, bere bizitzan zehar, bai hezkuntza-etxe batzuetan, bai klase partikularren bidez, neskamutiko kopuru eder bati irakatsi zien musika.

HAMAIKA antzerki taldea

1997. urtean hasi zen, MADALEN elkarteak antolatutako antzerki ikastaro baten ondorioz. 1999an, antzerki talde modura lehenengo lana estreinatu zuen.

"Lehenengo antzezlana "el festivo" delakoan, elizako areto batean egin genuen. "Aristofenes-en Lisistrata lana" izan zen, garai hartan oso "modernoa" zena, zeren emakumeen greba sexuala planteatzen baitzen. Batzuk aulkitik jaiki eta lotsagabeak deitu ziguten... Eskerrak ez genituen esan lanean jasota zeuden gauza gutiak!".



El grupo de teatro Hamaika representará la obra
'Lisístrata' el próximo día 12 en Arrigorriaga

La obra de Aristófanes será escenificada en el salón festivo de la parroquia de Santa María Magdalena en dos funciones. 'La Semana de la Mujer' sirve como telón de fondo para esta iniciativa que llevarán a cabo diez entusiastas del grupo Madalen.

Urte batzuk eman zituzten Bilboko Udalaren proiektu batekin Getxoko Antzerki Eskolari lotuta. Gaur egun HAMAIKA antzerki taldea MADALENek beste



jarduera bat baitlitzan jarraitzen du kudeatzen, nahiz eta aurrerakada handia egin duten. Taldea "Besarkada" (lehen "Caminos de Mujer") zirkuituaren barruan dago, eta esaten dutenez, euren emanaldiak kontratatzeko gero eta interes handiagoa dago.

"Geure "katxea" daukagu eta hamaika lekutan lan egiteko deitzen digute".

Elkarrizketatutako emakumeak:

- **Mª José Albizua Manrique, Arrigorriaga, 1959**
- **Karmele Albizua Egiluz, Arrigorriaga 1931**
- **Mª Amparo Calvo Soria, Soria 1941**
- **Mª Eugenia Ruiz Escuder, Cruces, 1959**
- **Rosa María Alonso Gato, Ugao-Miraballes, 1937**
- **Candi Miguel Benito, Segovia, 1936**
- **Mari Urquijo Pujana, Arrigorriaga, 1943**
- **Mª Cruz Eguren Zamalloa, Bilbao, 1930**
- **Mª Rosario Aranzabal, Arrankudiaga, 1925**
- **Eulalia Gil González, Burgos, 1936**
- **Antonia Cubillos López, Arrigorriaga, 1927**
- **Teresa Arrieta Bericat, Buñuel (Navarra), 1946**
- **Maruja Torres Orza**
- **Flori Vicente Puente, Salamanca, 1946**
- **Martina Sánchez Sánchez, Fuentelapeña, Zamora, 1952**
- **Paula Muro Elola, Donostia, 1948**
- **Patxi, hijo de Enriqueta Hortalá Cimiano, Madrid, 1945**
- **Manoli Esteban García, Salamanca, 1947**
- **Mª Dolores Arroyo Rivas, Arrigorriaga 1946**
- **Mª Carmen Iturralde Gutiérrez, León 1948**
- **Ramoni Fernández Iglesias, Ourense, 1945**
- **Maribel Sacristán Modrego, Bilbao, 1955**
- **Conchi Sánchez Ordaz, Salamanca, 1952**
- **Josefa Redondo Fernández, Valdepeñas, 1951**

Esker onak

Ez da zeregin erraza izan emakumeok protagonistak garen eta izan garen historiaren zati ilun hori berreskuratzea. Hau dela edo bestea dela, herri edo hiri guztietan egon dira euren inguruaren garapenean modu esanguratsuan parte hartu duten emakumeak.

Baina asko ez daude jada gure artean, eta euren esperientziara heltzeko bide bakarra familia eta lagunen oroipen eta testigantzak izan dira. Berandu heldu gara, eta ez dago galdutako denbora berreskuratzeko modurik, baina, merezi duten protagonismoa eta garrantzia ematen ahalegindu gara behintzat.

Beste alde batetik, emakumeen lanak bigarren mailara baztertuta egon dira, gizarte mailan ez dira aintzat hartu, eta horregatik askotan jaso ere ez dira egin.

Etxean eta etxetik kanpo egindako lanak, fabriketan, kalean, euren negozio txikietan, politikan; zaintza lanak, beharrak betetzekoak, bai fisikoak, bai psikologikoak edo afektiboak, antolakuntzakoak, administraziokoak, pazientzia eta ulermendunak, eta abar. Gu gaur hemen egotea posible egin dutenak, azken finean.

Lan honen helburua hurrengo hau izan da: gure artean ez dauden zenbait emakumeren izenak eta ekarpenak jasotzea, baina era berean, honakoa ziurtatzea: Historiak ez duela ahaztuko ingurunearen hobekuntzan laguntzeko egunero bere harri-koskorra ekarri duen hainbat emakume.

Baina informazio hau guztiau biltzea ez zen posible izango Arrigorriagako 66 bat emakumeren testigantzak eduki ezean, modu guztiz desinteresatuan lagundu dutenak, askok ahaztu nahiko lituzketen gertaerak gogoratuz batzuetan eta memoria esfortzu handia eginez.

Adin guztietako emakumeak izan dira, hainbat jatorritakoak, etxeko andreak, profesionalak, poli-

tikariak… denak udalerrikoak eta komunean ardura bera dutenak: emakumeak ez daitezela berriro ahaztuak izan. Testigantza zuzenez gain, pertsona kopuru ederrak lagundu digu emakumeak edo euren senideak aurkitzen, testigantza horiek xehetasunez osatzen eta euren oroitzapenak gehitzen.

Lan hau Arrigorriagako Udaleko Berdintasun sailak koordinatu du, genero berdintasunean espezializatutako EMARI aholkularitzarekin elkarlanean.

Lan hau burutu duen talde egilearen aldetik, eskerrik asko guzti-guztioi.

Bibliografia

- **Las Ikastolas de Bizkaia**, 1957-1972. http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/06/06015289.pdf
- **"La implantación del euskera a través de treinta años de historia"**. Revista Euskaletxeak 06. Artículo de Mikel Atxaga, http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-454/en/contenidos/informacion/06_revista_euskaletxeak/es_ee/adjuntos/72_12_13_c.pdf
- **"Los (no) lugares de las mujeres durante el franquismo: el trabajo femenino en el ámbito público y privado"**. Jordi Roca i Girona. , (http://www.euskomedia.org/aunamendi/127589).(http://gananzia.com/empresas-papeleras)
- **Depuración de maestras en el franquismo**. Juan Manuel Fernández Soria, María del Carmen Agulló Díaz. Departamento de Historia de la Educación, Facultad de Ciencias de la Educación,Universitat de Valencia, 1999
- **Estudio Sobre la Desigualdad de Género en Bizkaia: Actualizacion 2006**. Aurora Alonso, Javier Fernandez-Macho, Pilar Gonzalez. Instituto de Economía Pública. UPV/EHU.
- **Control de mercado y concentración empresarial: "La Papelera Española 1902-1935**". Miquel Gutierrez Poch. Universitat de Barcelona



Arrigorriagako emakumeen ekarpen historikoa

2012